

Bertsozale Elkartearen gogoeta estrategikoa



bertsozale
elkartea

Aurkibidea

I. ATALA.....	5
Etorbizun ikuspegia: 2018-2030 Gero(r)a mugitzen.....	5
1. Sarrera.....	5
2. Kokapena	5
2.1. Bertsozale Elkartearen ERAGIN EREMUAk: kulturgintza eta euskalgintza	6
2.2. Bertsozale Elkartearen JARDUN ESPARRUAk: plaza, hezkuntza, ikerkuntza, hedabideak eta komunikazioa	6
2.3. Bertsozale Elkartearen ZEHAR-LERROAK: feminismoa, belaunaldiartekotasuna eta lurraldetasuna.....	7
3. Jarduteko modua	7
4. Sailak.....	9
4.1. Sustapena	9
4.2. Transmisioa	10
4.3. Ikerkuntza.....	11
4.4. Feminismoa.....	12
4.5. Komunikazioa	13
4.6. Hedapena.....	13
4.7. Dokumentazioa –Xenpelar Dokumentazio Zentroa.....	15
5. Egitura/antolakuntza.....	15
5.1. Prozesuaren ezaugarriak.....	16
5.2. Bertsozaritzaren ekosistemaren argazkia	18
II. ATALA.....	19
Gogoeta 2018. Barriako Gogoetako ondorio orokorrak.....	19
1. Gogoeta gaia: Bertsozale Elkartearen helburu orokorra eta definizioa. Eragin eremuak, jardun esparruak eta zehar-lerroak.....	19
2. Gogoeta gaia: Bertsozale Elkartearen jarduteko modua: esku hartzea/ eragitea	22
3. Ildoz ildo.....	23
3.1. Sustapena	23
3.2. Transmisioa	34
3.3. Ikerkuntza.....	41
3.4. Feminismoa.....	46
3.5. Komunikazioa	57
3.6. Hedapena.....	66

Bertsozale Elkartearantzako ikasturte ederra izan da bukatu berri duguna. 2018a "Gogoeta Urte" izendatu eta barrura begira jarri ginen ekainean, Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoaren emaitzak esku artean genituela. Udako arnasaldiaren ondoren, udazkenean ekin genion datozen hamabi urteotako helburuak adosteko prozesuari. Iraileko larunbat eguzkitsu batean 120 bertsozale elkartu ginen Baionan, eta sailez sail Bertsozale Elkartearen hurrengo ziklorako helburuak zerrendatzen hasi ginen. Sei tailer haietan ikusi genuen zertan geunden ados eta non zeuden ikuspegi ezberdinen arteko eztabaidak.

Han jasotakoak txukundu ondoren, azaroan asteburu pasa emankorra egin genuen Barrian. Lehendabizi, Baionan adostasunez markatutako helburuak gure lehen tasunen arabera antolatzeko ariketa egin genuen; eta jarraian heldu genien Baionan askatu gabe utzitako korapiloei. Larunbatean Bertsozale Elkartearen eragin eremuen jardun esparruen, eta zehar-lerroen inguruan aritu ginen eztabaidan: alegia, euskalgintzan eta kulturgintzan nola kokatu nahi dugun gure proiektuaren bidez; gure proiektua hezkuntzan eta hezkuntzaren jardun esparrua gure proiektuan nola kokatzen dugun; eta feminismoa zehar-lerroa izanik, noraino eta nola eragitea dagokion Bertsozale Elkarteari genero ezberdinkeriaaren aurrean. Igandean berriz, plazan eta esfera publikoan nola jardun nahi dugun eztabaidatzeaz gain, bertsolaritzari ikuspegi feministatik ezarritako helburuak eta lanketa zehatzak denbora lerro batean kokatu genituen. Hori dena, 110 bertsozaleren parte-hartzearekin.

Behin Baionako eta Barriako asteburuak igarota, han jasotakoa txukuntzen, antolatzen eta sailez saileko egitasmo eta helburuetan txertatzen aritu gara orain arte, eta horren emaitza da dokumentu mamitsu honetan jaso duguna. Lehenago bidaltzea zen gure asmoa, baina aldaketa garrantzitsuak gertatu dira gurean. Tartean, Aritz Zerainek, gure Koordinatzaile Orokorak, erreleboa emateko nahia azaldu zigun. Udazkeneko gogoetan gure proiektuari jarritako helburuak ezagututa eta bertsolaritzaren gaur egungo beharrak ikusita, pertsonatik pertsonako erreleboa beharrean eredu bera ere aldatzea erabaki genuen. Hemendik aurrera, beraz, bi pertsonako koordinazio taldea izango du Bertsozale Elkartek: Idoia Trenor eta Jon Agirresarobe ariko dira eskuz esku lan horretan.

Zer da, beraz, dokumentu honetan aurkituko duzuna? Lehendabiziko atalean Baionan eta Barrian adostutako helburu orokorrak dauzkazu, eta baita orain dela hamabi urteko plan estrategikotik oinarri ditugun ardatzak ere. Ondoren, hilabete batzuk barru ekingo diogun egituraren inguruko gogoetaren nondik norakoak aurkituko dituzu, bertsolaritzaren ekosistemaren mapa orokor bat oinarri dutela. Barriako tailerretatik ateratako ondorioak dauzkazu jarraian. Eta, bukatzeko, sailez sail adostu ditugun helburuak eta Baionan eta Barrian jasotako ekarpenak, banan bana.

Hamabi urterako proiektu baten hezurdura da hemen daukazuna, eta gure helburuetara bidean, behin eta berriz joko dugu hona. Ilusioz ekin diogu bideari, helburuak ondo markatu ditugun konbentzimenduz eta prozesuan parte hartu duzen guztiekiko esker onez. Orain egitura helburu horietara egokitzeari ekingo diogu, gunez gune Bertsozale Elkarteak indartzeko eta arnasberritzeko eta borondatezko lanerako eredu ezberdinei lekua emateko. Datozen hamabi urteotako bidean ere, etengabe beharko baitugu zure grina, ilusioa eta begirada. Denok aberasten dugun proiektu honek, denok aberasten gaituelako.

Zuzendaritza Batzordea




I. ATALA

Etorkizun ikuspegia: 2018-2030 Gero(r)a mugitzen

1. Sarrera

Bertsozale Elkarteak **bertsolaritza geroratzeko** sortutako **gizarte mugimendu** bat da, helburu hori lortzeko hainbat eremutan eta eremutatik eragiten duena.

EGITEKOA: bertsolaritza zaindu, sustatu eta ikertzea, eta haren transmisioa eta etorkizuna bermatzea. Horretarako, bertsolaritzaz arduratzen diren bestelako eragile guztien bilgune izatea du xede, eta kontuan hartuko du zein diren tokian tokiko hizkuntza eta gizarte egoerak eta premiak.



2. Kokapena

Gizarte mugimendua izanik, bere baitan ardaztuta eta autonomiaz funtzionatuko du Bertsozale Elkarteak, eta lankidetzaz eskainiko die gizarte, administrazio eta enpresa esparruko erakundeei, beren kultur proposamenen garapenean parte hartu eta ekarpenak egiteko. Horrez gain, bertsolaritza geroratzeko helburuz, beste hainbat dimentsiok zeharkatuko dute elkartearen proiektua, **hiru geruzatan**.

2.1. Bertsozale Elkartearen ERAGIN EREMUAK: kulturgintza eta euskalgintza
Bertsolaritza geroratzea helburu izanik, kulturgintzan eta euskalgintzan eragingo du Bertsozale Elkartearen proiektuak, bertsolaritzaren geroratzea kulturgintzaren eta euskalgintzaren geroratzeari loturik baitago.

2.1.1. Euskarazko kultura adierazpide gisa, kultura sorkuntzan, eragiletzan eta diskurtsoan jarriko du indarra.

2.1.1.1. Kulturgintzaren osotasuneko estrategiaren aldeko lankidetzan urrats kualitatiboak egingo ditu, eta sormenaren kulturako eragileen eta gizarte mugimenduen arteko elkarlana uztartuko du.

2.1.1.2. Kulturgintzan elkarlana bultzatuko du, hizkuntzatik bat egiten dutenekin eta sorkuntzatik bat egiten dutenekin (maila ezberdinetan).

2.1.1.3. Kulturgintzan eragiteko diskurtsoa landuko du.

2.1.2. Bertsolaritza euskarazko kultura adierazpidea denez, Bertsozale Elkartea euskararen eragile da, eta lekuan lekuko egoera soziolinguistikoan eragiten du.

2.1.2.1. Bertsolaritzaren indar guneak oinarri hartuta, ahulguneetan ere eragiten ahaleginduko da.

2.2. Bertsozale Elkartearen JARDUN ESPARRUAK: plaza, hezkuntza, ikerkuntza, hedabideak eta komunikazioa

Bertsozale Elkartek, bertsolaritza geroratzeko helburuz, hainbat jardun esparrutan dihardu lanean; besteak beste, plazan, hezkuntzan, ikerkuntzan, hedabideetan eta komunikazioan.

2.2.1. **Plazan:** Bertsozale Elkartek sortzaileen autonomia zaindu eta bertsogintza garatzeko baldintzarik egokienak bilatuko ditu.

2.2.2. **Hezkuntzan:** Bertsozale Elkartek hezkuntzan ari den kontzientziaz eta arduraz jardungo du bere transmisio proiektu osoan.

2.2.2.1. Bertsolaritzaren transmisio proiektua ekosistema osotik elikatzen da.

2.2.2.2. Bertsozale Elkartea kultura proiektu bat denez, hezkuntza arautuko egitasmoak proiektu orokorra elikatzeko modu eraginkorrena garatuko du.

2.2.3. **Ikerkuntzan:** bertsolaritzaren mugimendua eta bertsogintza garatzeko ikerketak martxan jarriko dira unibertsitateekin eta ikerkuntza eragileekin lankidetzan.

2.2.4. **Hedabideetan:** bertsolaritza bere osotasunean garatzeko hedapen egitasmo egokiena gauzatu du.

2.2.5. **Komunikazioan:** Bertsozale Elkarteak bere harreman publikoak, lankidetzak eta diskurtso zein balioak erakutsiko ditu.

2.2.5.1. Harreman publikoetan: Bertsozale Elkarteak bertsolaritza bere osotasunean geroratzeko lankidetzak bilatuko ditu bertsolaritzako eragileekin zein gizarte, administrazio, eta enpresa esparruko erakundeekin.

2.3. Bertsozale Elkartearen ZEHAR-LERROAK: feminismoa, belaunaldiartekotasuna eta lurraldetasuna

Bertsozale Elkartearen proiektuak hainbat zehar-lerro izango ditu, bere egitasmo guztiak zeharkatzen dituztenak, bertsolaritza osotasunean geroratzea lortzeko.

2.3.1. **Feminismoa:** Bertsozale Elkarteak eredu izan behar du bertsolaritzaren mugimenduarekiko berdintasun politiketan, eta bertsolaritza bere osotasunean parekide izan dadin eragiteko ardura du.

2.3.2. **Lurraldetasuna:** Bertsozale Elkarteak bertsolaritza Euskal Herri osoan geroratzea du helburu, eta tokian tokiko ezaugarri eta erritmoak zaindu eta sustatuko ditu.

2.3.3. **Belaunaldiartekotasuna:** bertsolaritzaren belaunaldiartekotasuna zaindu eta sustatuko du.

3. Jarduteko modua

EGITEKOA: Bertsozale Elkarteak, bere jarduteko moduetan eredu izanik, bertsolaritza bere osotasunean geroratzea du helburu, bere proiektuaren eta lankidetzen bidez eta, hala beharko balitz, esku hartze konkretuak eginez.

3.1. Bertsolaritzaren zerbitzura egituratutako proiektu erreferente eta kohesionatua garatzen jarraitu, lan molde autonomoa, eredugarria, sortzailea eta iraunkorra/eramangarria oinarri dituela.

3.2. Bertsolaritzaren mugimenduan eragile bakoitzaren autonomia zaindu.

3.3. Bertso-eskolak indartu eta haiekiko harremana zaindu: tokiko egoeraren arabera, Elkaratearen eta bertso eskolen egitekoak argitu eta elkari lagundu, baliabideak eskainiz.

3.4. Bertsolaritzaren osotasuneko garapena helburu, urratsak egin.

3.4.1. Bertsozale Elkarateak bere ibilbidean landutako lan filosofiari eta metodologiari jarraitu, garaian garaiko joeretara egokitzeko jarrera irekiaz.

3.4.2. Oinarri soziala zabaldu.

3.4.3. Bertsolaritzaren ekosistema osoa indartu.

3.4.4. Gizarte mugimenduaren eta hari lotutako zerbitzu izaerako enpresa beregainen arteko egituraketa garatu. Autofinantzaketa printzipioa landu.

3.4.5. Antolaketa eta zuzendaritza organo indartsua eratu, sail, herrialde, jarduera eta sentsibiltate oro proiektu bakar batean egituratuko dituen.

3.4.6. Helburuetaranzko bidea prozesu gisa ulertu eta diseinatu.

3.4.7. Elkarren arteko adostasunak bilatu sentsibiltate ezberdinei leku eginez, onartuz eta eztabaidarako guneak sortuz eta zainduz.

3.5. Finantzazioari dagokionez, egonkortasuna lortu.

4. Sailak

4.1. Sustapena

EGITEKOA: bertsozaleen sustapena errealitate guztiak aintzat hartuz, sortzaileen autonomia errespetatuz eta sortzaileen iritzari bide emateko antolaketa eredu bat bermatuz.



EKIMENAK:

4.1.1. Bertsozale Elkarteak plazako baldintzak egokitzeko saiakera egingo du, plazaratzeari dagokionez arreta bereziki zehar-lerro diren hauetan jarritz:

4.1.1.1. Belaunaldiartekotasunari dagokionez, gazteen plazaratzean.

4.1.1.2. Ikuspegi feministatik, emakumeen plazaratzean.

4.1.1.3. Lurraldetasunaren ikuspegitik, herrialde ezberdinetako bertsozaleen plazaratzean.

4.1.2. Bertsozale Elkarteak bertsozale eta gai-jartzaileen lan baldintzak hobetzeko pausoak emango ditu.

4.1.3. Bertsogintzaz aritzeko gune baten ezaugarriak zehaztuko dira, eta martxan jartzeko aukera aztertuko da.

4.1.4. Epaille eta gai-jartzaile taldeak zainduko dira, eta formazio jarraitua eskainiko zaie.

4.1.5. Plazaren azterketa sistematikoa egingo da, horretarako azterketa gaiak eta bilketa moduak identifikatuz.

4.1.6. Txapelketa aktibazio proiektu gisa ulertuta, banakako eta taldekako txapelketak sustatuko dira, helburuez eta ereduez etengabeko gogoeta eginez.

4.1.7. Egile eskubideei dagokienez, aukera guztien azterketa egingo da eta sortzaileei aholkularitza eskainiko zaie.

4.1.8. Beste jardun artistikoekin harreman artistikoak bideratuko dira, etorkizunean elkarlan proiektu berriak lantzeko.

4.1.9. Lanku zerbitzu enpresa bultzatuko da, bertsogintzaren sustapen beharrei erantzun diezaien. Elkarlearen lan filosofian txertatua egongo da, eta bertsogintzako eragileen parte hartzearekin, haien behar profesionali erantzutea ere izango du xede.

4.2. Transmisioa

EGITEKOA: Bertsolaritzaren transmisio eta sozializazio ziklo osoa egituratu eta mugimenduaren garapena bermatu, bertso-eskolak, aisialdia eta hezkuntza arautua barne dituela.

EKIMENAK:

4.2.1. Elkarleak hezkuntzan dituen ardurez eta eginkizunez kontziente egin, eta gure ekarpena kalitatez gauzatzeko proiektua garatu.

4.2.1.1. Oinarri pedagogikoetan, ikerkuntzan eta materialgintzan sakondu. Gozamina ardatz harturik, gure balioak definitu eta didaktika etengabeko ikerlerro bilakatu. Formakuntza iraunkorra bideratu eta materiala sortu.

4.2.1.2. Aisialdiaren garrantzia azpimarratu, adin guztietan, tokian tokiko eta nazio mailako ekimenen bidez, bertsolaritza gozamenetik bizitzeko, harreman sareak sortzeko, kideak erakartzeko.

4.2.1.3. Bertso-eskolak sustatu eta haiekiko harremana zaindu. Tokiko egoeraren arabera, elkarri lagundu, baliabideak eskainiz.

4.2.1.4. Hezkuntza arautuko egungo errealitatea eta beharrak ezagutzuz, egungo proiektua egokitu.

4.2.2. Hezkuntza proiektuak (formala, ez-formala eta informala) Elkartearen barruan duen dimentsioaz eta eraginaz kontziente egin, eta modurik eraginkorrenean egituratu.

4.2.3. Zabalkundeari dagokionez, tokian tokiko helburu estrategikoen eta baliabideen arabera, geuk erabaki noraino eta nola iritsi nahi dugun.

4.3. Ikerkuntza

EGITEKOA: Ikerkuntza jarraitua egin, eragin, aplikatu eta gizarteratu euskarazko ahozko kultura sisteman ere eragiteko bokazioz.



EKIMENAK:

4.3.1. Euskarazko ahozko kultura mugimenduan eta sorkuntzan eragin.

4.3.2. Ikerketen gizarteratzea eta aplikazioa sustatu, bai bertsolaritzan eta baita bertsolaritzatik haragoko esparruetan ere.

4.3.3. Hartzaileen arabeko jakintzaren dibulgazio mailakatua sustatu.

4.3.4. Ikerkuntza eta formazio jarraitua egin eta eragin, kanpoko eskaeren eta gure ikerketa beharren arteko oreka bilatuz. Elkartea bertsogintzaren eta bertsolaritzaren eragile den heinean, sinergiak baliatuz bideratuko da ikerkuntza: euskal kulturako eta euskalgintzako kideekin, ahozko inprobisazio kantatuko kideekin, ikerketa erakundeekin...

4.3.5. Mintzola birpentsatu, zehar-lerrotasuna eta funtzioak argituz, ikerkuntzaren beharrei erantzun diezaien eta ikerketak susta ditzan.

4.3.6. Beste hizkuntza eta adierazpideetako eskaerei erantzun.

4.3.7. Bertsozale Elkarreak ezinbestekoa du etengabeko ikerketa eta gogoeta. Sail eta herrialdeetako zehar-lerro izango da ikerkuntza, eta, horrez gain, ikerkuntza beren beregi bultzatuko duen ikerkuntza talde bat ere izango du Elkarreak.

4.4. Feminismoa

EGITEKOA: Bertsozale Elkarrearen barruan berdintasun politikak gauzatu, eta bertsolaritza bere osotasunean parekidea izan dadin eragin.

EKIMENAK:

4.4.1. Formazioa bideratu, bertsolaritzako eragile bakoitzari egokituta.

4.4.2. Bertsozale Elkarrearen berdintasun plana landu, eta haren arabeko urratsak egin.

4.4.3. Aniztasuna ikusgai egiteko eta zabaltzeko lan egin, eredu aniztasuna eta "bertsolaria"/"bertsolaritza"ren definizio berriak islatuz.

4.4.4. Sail eta herrialdeetako zehar-lerro izango da feminismoa, eta, horrez gain, eraldaketa feminista beren beregi bultzatuko duen egitura bat ere izango du elkarteak.

4.5. Komunikazioa

EGITEKOA: Bertsozale Elkartearen komunikazio politika osoa garatu: hartzaille bakoitzari egokitutako diskurtso propioa eta koherentea egin, eta garaian garaiko bitartekoen erabilera optimizatu.

EKIMENAK:

4.5.1. Bertsozale Elkartearen misioa eta bisioa aintzat hartuz, komunikazio politika osoa definitu, garatu eta garaira egokitu.

4.5.2. Barne kohesioari arreta berezia eskaini. Elkarteko kideen arteko barne komunikazioa garatu. Hartzaille talde ezberdinak identifikatu, eta haiengana iristeko mezu eta erreminta egokituak landu.

4.5.3. Kanpo komunikazioari dagokionez: elkartearen proiektua gizarteratu; irudi bateratua eta askotarikoa (lurralde, belaunaldiz eta generoz) landu; diskurtso propioa eta koherentea garatu; erdal hizkuntzen erabilera definitu; hartzaille talde ezberdinak identifikatu, eta haiengana iristeko mezu eta erreminta egokituak landu.

4.5.3.1. Proiektuak komunikatuko dira, eta, haien bitartez, harreman publikoak, lankidetzak, Elkartearen diskurtsoa zein balioak plazaratuko dira. Beharren arabera, komunikazio lan esplizituago bat nola egin daitekeen aztertuko da.

4.5.4. Barne eta kanpo komunikazioan, bermatuko da bertsolaritzak osotasuneko lekua izan dezala garaian garaiko komunikazio bide eta guneetan.

4.5.5. Sail eta herrialdeekin zehar-lerroan egituratuta egongo den komunikazio atal sendo eta iraunkorra garatu.

4.6. Hedapena

EGITEKOA: Bertsogintza eta bertsolaritza hedatu errealitate guztiak aintzat hartuz eta garaian garaiko bitartekoak erabiliz.

EKIMENAK:

4.6.1. Eduki aniztasuna gaietan eta formetan: bertsolaritzaren errealitate osoa erakusteko, publiko motaren araberako ekoizpen berriak sustatuko dira.

4.6.2. Hedabideen eta sare sozialen errealitate berrira egokituko da, zabalkunderako aukera berrien eta bertsolarien jardunaren zaintzaren arteko oreka bilatuz.

4.6.3. Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren hedapenerako komunikazio-bideak landuko dira sortzaileekin.

4.6.4. Gure hedabideen finantzaketa bideragarri egiteko formula berriak bilatuko dira.

4.6.5. Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren hedapenerako Bertsozale Elkartearen balizko elkarlanen izaera landuko da hedabideekin eta ekoiztetxeekin.

4.6.6. Hartzaileen audientzia datuak eta hedapenerako bide eraginkorrak aztertuko dira.



4.7. Dokumentazioa –Xenpelar Dokumentazio Zentroa

EGITEKOA: Bertsolaritzaren ondarea bildu, antolatu, erabiltzaileen eskuetan jarri eta geroratzea.

EKIMENAK:

4.7.1. XDZ bertsolaritzaren mugimenduaren beharrei gaurkotasunez erantzungo dien behatokia izatea bermatu.

4.7.2. Bertsolaritzako eragileekin harremanak sustatuz eta bilketa sarea indartuz, etorkizuneko ikerketak ahalbidetzeko informazioa eta dokumentazioa ziurtatu.

4.7.3. XDZ eta beste ahozko kultura sorkuntzen dokumentazio egitasmoen arteko harremana eta elkarlana ahalbidetu.



5. Egitura/antolakuntza

Hurrengo 12 urteetarako plan estrategikoa egiteko gogoeta prozesuaren baitan kokatu behar dugu EHBERen egituraren gaia. Elkartearen egitura hartzen joan den dimentsio eta konplexutasunak, zein gogoeta prozesuak eman duen guztiak, egituraren lanketa modu sakon batean egitea eskatzen du. Bertsozale Elkarteak bizi

duen garai estrategiko honetan, elementu ugari zeharkatzen dituen garatu beharreko beste lanketa garrantzitsu bat izango da egiturarena.

EHBEn egituraren dimentsioa eta konplexutasuna direla eta, egituraren lanketarako partaidetza prozesua diseinatu ahal izateko (prozesu honen helburuak zeintzuk izango diren, nola landuko den edo zein metodologia baliatuko den, nola egokituko den prozesua egitura honen baitako eremu eta gune ezberdinen errealitatera...) ko-diseinu fase bat irekiko da; izan ere, egitura hau barnetik ezagutzen duten eragileen partaidetza beharrezkoa da, benetan eraginkorra eta aberatsa izango den lan-prozesu bat diseinatzeko. Modu honetan, EHBERi ko-diseinu fase honetan Farapiko kideekin elkarlanean aritzeko "talde eragile" bat osatuko da.

5.1. Prozesuaren ezaugarriak

Gerora mugitzen dokumentuan oinarritutako gogoeta.

1. **Plazaren analisisia**

Helburua: argazki orokorra egin eta neurriratzea.

1.1. Noraino iristen da elkarte eta noraino iritsi nahi dugu?

2. **Plazaren inguruan dauden guneen analisisia**

Helburua: egungo egoeraren analisisia eta bakoitzaren pertzepzioak jasotzea

2.1. Norekin ditu harremanak? Nola dago osatua? Non hartzen dira erabakiak? Non parte hartzen dute borondatezkoek?

2.2. Zein funtzio betetzen ditu guneak? Zeintzuk bete beharko lituzke? Zeintzuk dira gunearen beharrak?

2.3. Gunearen osaketak bermatzen al du gogoetan gune honi ezarritako helburuak bermatzea? Helburuak betetzeko, norekin izan beharko lituzke harremanak?

3. **Gune desberdinen arteko harremanak**

Helburua: herrialde – sailak - EH harremanak aztertzea.

3.1. Non eta nola hartzen dira erabakiak?

3.2. Ikuspegi osoaren bermea

3.2.1. Herrialde eta EHko ikuspegiaren arteko zubia


4. Etorkizuneko pausoak

Helburua: datorren ziklorako bertso mugimenduak beharrezko izango dituen guneak identifikatu, kokatu eta ekintza plana diseinatzea.

- 4.1. Zein gune eta egitura behar ditugu? Nola iritsiko gara irudikatzen dugun egiturara?
- 4.2. Zein ekintza egingo ditugu eta zein epeetan?

EZZABALDU

5.2. Bertsolaritzaren ekosistemaren argazkia



II. ATALA

Gogoeta 2018. Barriako gogoetako ondorio orokorrak

Dokumentu honetan, **Barriako gogoetan ateratako ondorio nagusien sintesia** agertzen da. Hemen agertzen diren esaldiak Barrian taldeetan adostutako esaldien bateratzeetik datoz; ondorioak, berriz, Gogoeten hustuketatik jasotako ondorio bildumaren laburpena dira. Esaldiak eta ondorioak *Etorkizun Ikuspegia 2019-2030* dokumentuan txertatuko dira, dokumentuaren egiturari eta idazkerari egokituta.

Ondorio hauek 2019ko urtarilaren 22ko EHBeko Zuzendaritza Batzordean onartu dira.



1. Gogoeta gaia: Bertsozale Elkartearen helburu orokorra eta definizioa. Eragin eremuak, jardun esparruak eta zehar-lerroak

1.1. Bertsozale Elkartearen helburu orokorra eta definizioa

"Bertsozale Elkartea bertsolaritza geroratzeko sortutako gizarte mugimendua da, helburu hori lortzeko hainbat eremutan eta eremutatik eragiten duena".

EGITEKOA: Bertsolaritza zaindu, sustatu eta ikertu, eta bere transmisioa eta etorkizuna bermatu Horretarako, bertsolaritzaz arduratzen diren bestelako eragile guztien bilgune izatea du xede, eta kontuan hartuko du zein diren tokian tokiko hizkuntz eta gizarte egoerak eta premiak.

(2006ko Gogoeta Estrategikoan zehaztua mantentzea proposatzen da)

1.2. KOKAPENA: eragin eremuak, jardun esparruak eta zehar lerroak

1.2.1. Eragin eremuak: **EUSKALGINTZA/KULTURGINTZA**

Barriako Gogoetako Ondorioak eta Etorkizun Ikuspegia 2019-2030 dokumentuan txertatuko diren puntuak

1. Bertsozale Elkartearen proiektuaren eragin eremuak dira euskalgintza eta kulturgintza. Bertsolaritza geroratzea helburu izanik, kulturgintzan eta euskalgintzan eragingo du Bertsozale Elkartearen proiektuak, bertsolaritzaren geroratzea euskalgintzaren eta kulturgintzaren geroratzeari loturik baitago.

1.1. Euskarazko kultur adierazpide gisa, kultur sorkuntzan, eragiletzan eta diskurtsoan indarra jarriko du.

1.2. Bertsolaritza euskarazko kultur adierazpidea delako Bertsozale Elkartearen eragile da eta lekuan lekuko egoera soziolinguistikoan eragiten du.

1.2.2. Jardun esparrua: **HEZKUNTZA**

Bertsozale Elkarteak hainbat **jardun esparru** ditu eta horietako bat eraman zen Barriako gogoetara: hezkuntza. Baina, *Etorkizun Ikuspegia* dokumentuan, gainerako jardun esparruak ere agertu behar dute, horiek mantentzen direlako gure egitasmoan.

Barriako Gogoetako Ondorioak eta Etorkizun Ikuspegia 2019-2030 dokumentuan txertatuko diren puntuak

1. Bertsozale Elkartek, bertsolaritza geroratzeko helburuz, hainbat jardun esparrutan dihardu lanean, besteak beste, plazan, hezkuntzan, ikerkuntzan, hedabideetan eta komunikazioan.

1.1. Bertsozale Elkartek bere transmisio proiektu osoan, hezkuntzan ari den kontzientziaz eta arduraz jardungo du (*Barriako Gogoetatik sortutako esaldia*).

1.2. Bertsolaritzaren Transmisio proiektua ekosistema osotik elikatzen da.

1.3. Bertsozale Elkartea kultur proiektu bat izanik, hezkuntza arautuko egitasmoak proiektu orokorra elikatzeko modu eraginkorrena pentsatuko du (*Barriako Gogoetatik sortutako esaldia*).

1.2.3. Zehar-lerroa: **FEMINISMOA**

Bertsozale Elkartek **hainbat zehar-lerro** ditu eta horietako bat eraman zen Barriako gogoetara: feminismoa. Baina, *Etorkizun Ikuspegia* dokumentuan, gainerako zehar-lerroak ere agertu behar dute, horiek mantentzen direlako gure egitasmoan.

Barriako Gogoetako Ondorioak eta Etorkizun Ikuspegia 2019-2030 dokumentuan txertatuko diren puntuak

1. Bertsozale Elkaratearen proiektuak hainbat zehar-lerro izango ditu bere egitasmo guztiak zeharkatzen dituztenak, bertsolaritzaren osotasunezko geroratzea lortzeko. Zehar-lerro hauek lirateke feminismoa, belaunaldiartekotasuna eta lurralde ikuspegia.

1.1. Bertsozale Elkartek bertsolaritzaren mugimenduarekiko berdintasun politiketan eredu izan behar du, eta bertsolaritza bere osotasunean parekide izan dadin eragiteko ardura du (*Barriako Gogoetatik sortutako esaldia*).

2. Gogoeta gaia: Bertsozale Elkartearen jarduteko modua: esku hartzea/ eragitea

2006ko Gogoetan ez zen jarduteko moduz gogoeta espliziturik egin, baina dokumentuan agertzen dira honi buruzko zenbait aipamen.

Etorkizun Ikuspegia 2019-2030 dokumenturako proposamena da:

Atal berezi moduan agertzea JARDUTEKO modua eta, bertan, Barriako gogoetaren ondorioz ateratako esaldi OROKORRAK eta gogoeta ezberdinetan jarduteko moduari zegozkion ideiak txertatzea. Azkenik, 2006ko dokumentuan gai honi buruz ageri diren aipamen batzuk mantentzea proposatzen da.

Barriako Gogoetako Ondorioak eta Etorkizun Ikuspegia 2019-2030 dokumentuan txertatuko diren puntuak

JARDUTEKO MODUA

Bertsozale Elkarteak, bere jarduteko moduetan eredu izanik, bertsolaritza bere osotasunean geroratzea du helburu bere proiektuaren eta lankidetzen bidez eta, hala beharko balitz, esku-hartze konkretuak eginez (*BARRIAko Gogoetatik sortutako esaldia*).

(2006ko dokumentutik datozen esaldiak + Barriako gogoeta ezberdinetan ateratakoak)

1. Bertsolaritzaren zerbitzura egituratutako proiektu erreferente eta kohesionatua garatzen jarraitu, lan-molde autonomoa, eredugarria, sortzailea eta iraunkorra/eramangarria oinarri dituela.
2. Bertsolaritzaren mugimenduan eragile bakoitzaren autonomia zainduko du.
3. Bertsolaritzaren osotasuneko garapena helburu, urratsak egin:
 - 3.1. Bertsozale Elkarteak bere ibilbidean landutako lan filosofiari eta metodologiari jarraitu, garaian garaiko joeretara egokitzeko jarrera irekiaz.
 - 3.2. Oinarri soziala zabaldu.
 - 3.3. Bertsolaritzaren ekosistema osoa indartu.
 - 3.4. Gizarte mugimenduaren eta honi lotutako zerbitzu izaerako enpresa beregainen arteko egituraketa garatu. Autofinantzaketa printzipioa landu.

- 3.5. Antolaketa eta zuzendaritza organo indartsua eratu, sail, herrialde, jarduera eta sentsibilitate oro proiektu bakar batean egituratuko dituen.
- 3.6. Helburuetaranzko bidea prozesu bezala ulertu eta diseinatu.
- 3.7. Elkarren arteko adostasunak bilatu sentsibilitate ezberdinei leku eginez eta onartuz eta eztabaidarako guneak sortuz eta zainduz.

3. Ildoz ildo

3.1. Sustapena

Sustapen Sailak dokumentu honetan bildu ditu Bertsozale Elkartearen Gogoeta Estrategikoan jasotako lan-ildoak eta ideiak guztiak. *Bertsozale Elkartearen Etorkizun Ikuspegia 2018-2030* dokumentuaren osagarri eta jarraipen gisa planteatzen da eta Sustapen Sailaren lanerako baliagarri izango delakoan sortu da. Hona hemen dokumentuan lantzen direnak:

1. Sustapeneko lan-ildoak eta lehentasunak (Baiona eta Barriako gogoeta)
2. Plazaren eragitea eremu ezberdinetan atalean izandako ekarpenak (Barriako gogoeta)
3. Lan-ildo bakoitzean izandako ideia guztiak (Baiona eta Barriako gogoeta) eta beste sailek lan-ildo bakoitzean duten partaidetza

1. Sustapeneko lan-ildoak eta hauen lehentasunak

Sustapenak Baionan planteatu zituen gaien bueltan sortu dira lan-ildoak eta ideia nagusiak.

Nahiz eta Baionan bi multzo desberdinetan sailkatuta jaso, lanak antolatzeko, lan-ildo hauek bakarrean uztartzea erabaki da:

1. Plazan eragitea eta elkarteak plazan izan behar duen eragina.
2. Bertsogintza kanonak eta bertsogintzako foroa.

Gai bakoitzari emandako lehentasuna eta eremu bakoitzean jasotako ideiak beheko laburpen taulan daude bilduta. Oro har, parte hartzaileek onarpena eman diote lan-ildoan aurkezpenari eta aktaren laburpenari. Ekarpen guztiek ideia edo proposamenen zehaztera jo dute.

Bestalde, ondorio nagusi bat atera dezakegu: Baionan ezarritako lehentasunak berretsi ziren Barrian. **Alegia, argi daude Sustapen Sailaren lan-ildoak eta esparru bakoitzaren lehentasun maila.**



Lan-ildoen azalpena	Baionan	Barrian
<p>Plazaren eragitea eremu ezberdinetan</p> <p>Elkarteak plazako baldintzak aldatzeko saiakera egitea (zehar-lerroak, baldintza teknikoak, gazteen plazaratzea...)</p> <p>Plazako artikulazioan elkarteak izan duen papera barraztertzea.</p>	14 ideia	27 gometx
<p>Belaunaldi berrien plazaratzea</p> <p>Begia jartzea gazteek txapelketaz kanpo dituzten plazaratze aukeretan.</p>	19 ideia	18 gometx
<p>Sortzaileen lan baldintzak hobetzea</p> <p>Bertsolari eta gai-jartzaileen lan baldintzak hobetzeko pausoak ematea.</p>	17 ideia	14 gometx
<p>Kanonak eta bertsogintza foroa</p> <p>Bertsogintzaz aritzeko gune baten ezaugarriak zehaztu eta martxan jartzeko beharra.</p>	14 ideia	13 gometx
<p>Gai-jartzaileak</p> <p>Formazio jarraitua, plazaratzea, eskoletan gai-jartzailetza prestigiatzea.</p>	11 ideia	7 gometx
<p>Plazaren azterketa egitea</p> <p>Azterketa gaien identifikazioa eta azterketa sistematikoa burutzea.</p>	6 ideia	10 gometx
<p>Txapelketa</p> <p>Banakakoak eta taldekakoak: helburuak, ereduak,... txapelketa lantzea aktibazio proiektu gisa ulertuta.</p>	5 ideia	8 gometx
<p>Egile eskubideak</p> <p>SGAE ez den beste alternatibaren azterketa eta sortzaileei aholkularitza.</p>	6 ideia	5 gometx
<p>Beste jardun artistikoak</p> <p>Harreman artistikoak bideratu etorkizunean elkarlan proiektu berriak lantzeko.</p>	3 ideia	3 gometx

* Lan-ildoak Bertsozale Elkartearen Etorkizun Ikuspegia 2018-2030 dokumentuan bezala jaso dira.

2. Plazaren eragitea eremu ezberdinetan atalean izandako ekarpenak

Ezer baino lehen azter dezagun proposatu diren esaldiek izan duten atxikimendua:

1. Gure egitasmoetatik eredu izaten eta beste eragileekin elkarlana lantzen jarraituko dugu, plazan eragiteko helburu zehatzak identifikatuz eta pauso konkretuak emanez.					
		5	17	61	83
2. Gure egitasmoetatik eredu izaten eta beste eragileekin elkarlana lantzen jarraituko dugu, plazan eragiteko helburu zehatzak identifikatuz eta pauso konkretuak emanez, eta plazaren azterketa oinarri hartuta jauzi kualitatibo bat emanez.					
	1	11	25	47	84
3. Bertsozale Elkarreak beste eragileei irizpideak azalduko dizkie eta, beharra ikusten denean, esku hartuko du.					
7	16	24	25	13	85

Hauek dira adostu diren esaldi alternatiboak (jasota bezala bildu ditugu dokumentuan):

1. *“Gure egitasmoetatik eredu izaten eta beste eragileekin elkarlana lantzen jarraituko dugu, plazan eragiteko helburu zehatzak identifikatuz eta pauso konkretuak emanez, eta plazaren azterketa oinarri hartuta jauzi kualitatibo bat emanez”.*

2. *“Bertsozale Elkarteak beste eragileei irizpideak azalduko dizkie...”*

3. *“Gure egitasmoetatik eredu izaten eta beste eragileekin elkarlana lantzen jarraituko dugu, plazan eragiteko helburu zehatzak identifikatuz eta pauso konkretuak emanez, eta plazaren azterketa oinarri hartuta bertsolaritzan ari diren beste eragileekiko sentsibilizazio eta pedagogia lan bat egingo dugu, beti ere autonomia errespetatuz”.*

4. *“Bertsozale Elkarteak bere irizpideak adostu, proposatu eta gizarteratuko ditu, bere ekimenetan integratu eta besteetan bete daitezen saiatuko da”.*

Proposatutako esaldien atxikimenduetatik eta esaldi alternatiboetatik zenbait adostasun eta zalantza ondorioztatu daitezke. Sustapen Sailak eguneroko lanean kontuan izango ditu adostasun eta zalantza horiek. Bederatzi puntutan bildu ditu jardunbide nagusiak:

1. **Hiru zehar-lerroak.** Beharrezko ikusten da **zehar-lerro eta irizpideen etengabeko gogoeta**. Hiru dira nagusiak: belaunaldiartekotasuna, feminismoa eta lurraldetasuna.

2. **Plazaren azterketa burutu. Zehar-lerroak adosterakoan presente izango dugu plaza azterketa.** Plazako datuak bildu, aztertu eta ondorioak ateratzeko protokoloa behar dugu.

3. **Gure egitasmoak eredu. Gure egitasmoetatik eredu izatea ez da zalantzan jartzen, are gehiago, lan moduetan lehenetsi egiten da.** Kontzientzia hartu behar dugu gure egitasmo guztiek eragina daukatela besteengan, hau da, Bertsozale Elkartearen egitasmoak eredu dira neurri batean edo bestean.

4. **“Jauzi kualitatiboa” terminoa ez dugu erabiliko. “Jauzi kualitatiboa” terminoak zalantza sortzen die gogoetan parte hartu duten kideei**, ezberdin ulertzen da taldearen arabera eta tentsioa sortu du: batzuk gaur arte egin ez den zerbait buruz ari garela ikusten dute (antolatzaileengan esku hartu, irmotasuna erakutsi...), beste batzuk gaur arteko bideari pauso berriak eta konkretuak markatzeari atxiki diote jauzi kualitatiboa ideia.

5. **“Esku hartu” terminoa ez dugu erabiliko. “Plazan esku hartu” terminoak muturreko iritziak sortu ditu** (hirugarren galderaren emaitza). Emaitza ez da nabarmena, baina esku hartzearen aldera lerratzen direnak gehiago dira. Kontrakoen artean beste eragileak epaitzeak eta hauen autonomia ez errespetatzeak sortu du kezka.

6. **“Plazan eragin” terminoa zalantzan. “Plazan eragin” terminoak (lehen galderaren emaitza) batasun gehiago lortu du, tentsioa sortzen duen arren**. Zalantza nagusia hau da: proiektuaren jabetza edo ardura Bertsozale Elkarteara ez denean Elkartearen eragin esparrua zein den.

7. **Beste eragileekin elkarlana ezinbesteko**. Plazako baldintzak **egokitzeko eta irizpide nahiz zehar-lerroak bete daitezten beste eragileekin elkarlana begi onez ikusten da, baina elkarlanaren moduak aztertu eta aukeratu behar dira**. Antolatzaileengana iristeko bitarteko eta kanal mordoxka proposatu dira tailerretan, hori bai, sakontasun eta agresibitate ezberdinekoak.

8. **Pauso berriak eta konkretuak adostu beharra**. Antolatzaileekin elkarlana eginez **plazako baldintzak egokitzeko pauso berriak eta konkretuak ezartzearen alde dago gehiengoa**.

9. **Pedagogia eta sentsibilizazioa egiteko bideak. Aukeratutako bideetan pedagogia eta sentsibilizazio lanek adostasun handia dute**. Proposamenen artean askotan ateratzen da **“Bertsozale Elkarateak beste eragileei bere irizpideak azalduko dizkie” “Bertsozale Elkarateak bere irizpideak gizarteratuko ditu”** esaldiak. Azken batean irizpideak azaltzeko moduak ere ugariak dira eta lehenetsi beharrekoak.

3. Lan-ildo bakoitzean izandako ideia guztiak

Bestalde, ildo bakoitzean aipatu diren ideia guztiak bildu dira. Ideien bilketa egiterakoan, kontuan izan dira zenbait irizpide:

- Lan-ildo bakoitzaren pean bildu dira alor horretako ideia guztiak.

- Lan-ildo bakoitzaren barruan gehien errepikatu diren ideiak kokatu dira lehenbizi.
- Ekarpen bat egiten duten ideiak bildu dira, gogoeta beharrak edo egoeraren irakurketa zabalak lan-ildoetan jasoak baitaude.
- Puntuekin azpimarratuta daude lan-ildo horretan parte hartuko duten sailak.

Plazaren eragitea eremu ezberdinetan

1. Zehar-lerroak adostu, lehentasunak jarri eta urtero errebisatzea. FEMINISMOA

- HERRIALDEAK

- Belaunaldiartekosunari buruz zehaztapena: ez da bakarrik gazteak plazaratzea, baizik eta desagertu diren belaunaldi askotariko horietan fokoa jartzea. Adibidez, 40 urtetik gorako emakumeak, bertsolari adinekoak, txapelketan ez daudenak...
- Lurraldetasunari buruz: herrialde ezberdineko bertsolariak kontuan hartzeaz gain tokikoa zaintzea, herriko edo inguruko artistak.
- Bertsogintza kanonak txertatu behar dira irizpideetan zehar-lerroez gain.
- Kontuan hartzeko: txapelketetan eta plazan gurasotasunarekin eta zaintzarekin lotutako egoerak identifikatu eta irtenbideak eman.

2. Elkaratearen eragin eremua nola handitu ideiak. HERRIALDEAK

- Eremu ez-euskaldunetan eta ez bertsozaleetan elkarateak plaza gehiago bultzatu beharko lituzke, Iparraldean esaterako.
- Luberri proiektuaren bigarren aldia, galdu direnak berreskuratzeko eta gazteen plazaratzea bermatzeko.

3. Plazako baldintza minimoak zerrendatu eta betetzeko bideak jarri.

4. Antolatzaileetara iritsi eta plazako irizpideak helarazteko moduetan aukera ezberdinak atera dira. KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA

- Komunikazio estrategia: Elkarateak gai honekiko sentsibiltatea eta kontzientzia sustatzea beste kultur eragileekin elkarlanean.
- Saiok antolatzeko gida: tokian tokiko antolatzaileei gure balioen berri emanez.
- Lankuren zerbitzuaren bidez: zehar lerroen berri emanaz eta horren arabera bertsolariak proposatuz.

- Formazio jarraitua eragileei: antolatzaileei, eragileei, Lankuko langileei...
- Kuotak, hemen bi azpi-gai nagusi:
 - Kuotak orokortasunean ulertu behar dira, saio guztietan zaila baita zehar lerro guztiak betetzea (bi bertsolariko saioak).
 - Epeetan lan progresiboa egitea proposatzen da.
- Balorazio fitxak: antolatzaileak eta Lankuk bete dezatela, zehar-lerroen gogoeta txertatuz.
- Pertsonak transmisio: Zuzenean elkartetik, baina bai elkarteko irizpideak konpartitzen dituzten norbanakoengandik.
- Proiektuak transmisio: Hitzetik Hortzera, www.bertsoa.eus proiektuetan presentzia antolatzaile eredugarriekin.

Belaunaldi berrien plazaratzea **TRANSMISIOA**

1. Belaunaldi berrien espazio propioa landu behar da: garatzeko lekua, sentimendu kolektiboa, diskurtsoa. Azken batean, generazio kideekin sentimendu bera eta bide komun bat eraiki, gazte gisa bertso munduan leku bat izateko edo topatzeko.

2. Kontzientzia sortu behar da gazteen artean hainbeste bertsolari egonda zaila dela denontzako plazak izatea.

3. Lehiaz kanpoko foroak sortu behar al dira gazteentzat edo gazteekin? Nola eragin? Saio bereziak? Elkarrekin zein rol?

Sortzaileen lan baldintzak hobetzea **KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA- LANKU**

1. Bertsogintzarako dedikazioa bermatzeko, bertsolarien diru-sarrera duinak bermatzeko gutxieneko baldintzak zehaztu behar dira.

2. Diskurtso sendo bat sortu behar da ondo azaltzeko zergatik den beharrezkoa sortzaileen lan baldintza onak bermatzea. 12 urteren buruan, euskalgintzan egoteaz gainera kulturgintzan orekatuago egoteko kontzientzia.

3. Hedabideen presentzia: EITB Kultura bezalakoetan agertzea.

4. Beste kultura diziplinekin dinamikak sor daitezke sortzaileen lan baldintzei lotutakoak.

5. Intermitenteak bezalako ereduak ezagutu eta bultzatu behar dira, jakin sortzaileek lan baldintza egokiagoak dituzten herrialdeetan nola funtzionatzen duten sistema horiek eta nola ekar dezakegun hori gurera.

6. Lankuren baldintzak eta kategoriak eredu izan behar dute.

7. Beltzean egiten diren saioetan, bertsolariak babesteko protokoloa zehaztu behar da.

Kanonak eta bertsogintza foroa **KOMUNIKAZIOA**

1. Plazako bertsolaritzaren etengabeko ikerketa bultzatu behar da.

2. Autore- bertsolaritza(k). Kanon bat baino gehiago legitimatzeko baldintzak sortzea, esaterako, musika eremuan bezala. Defendatu behar dira definizio kultural anitzak edo artista izateko modu ezberdinak bertsolaritza munduan.

3. Bertsogintzaren elkarbanatzea: lan artistikoaz jarduteko foroak, espazioak... partekatu eta eztabaidatu ahal izateko. Epaileak, gai-jartzaileak formatzeko, eztabaidatzeko, berriak erakartzeko gunea/foroa/metodoa.

4. Bertsolarien arteko elkarrizketa gauzatu daitekeen eremua sortu. Eremu horretan kontzientzia hartuz ahaldundu, praktikan jarri.

- Sortzaile kezka publikoan konpartitzea kezka iturri da. Nola eman forma foroari? Sortzaileena bakarrik? Publiko-pribatu, kanpo-barru...
- Digitala izan behar du, ezinbestean.
- Intranet antzeko bat izan daiteke: foroa, edukia konpartitzeko lekua, audioak, iritziak, tekniken azalpena, pasadizoak...
- Izen-abizenekin identifikaturiko gunea.

Gai-jartzaileak **TRANSMISIOA- HEDAPENA**

1. Trebakuntza jarraitua: gai-jartzaile eta epaileen foro jarraikorak sortu trebakuntzatarako.

2. Prestigioa: saioetan gai-jartzailearen rolari beharrezkoa den garrantzia emateko premia sortzea, denek seriotasunez hartzeko.

- Gai-jartzaileen zerrenda eguneratua izan.
- Gai-jartzaitza eta epaitza hezkuntza arautuan eta bertso eskoletan landu eta ikusgarritasuna eman.
- Gai-jartzaitzari eta epaitzari (eredu egokiei batik bat) hedapena eman gure egitasmoetan.

Plazaren azterketa egitea **XENPELAR DOKUMENTAZIOA ZENTROA – IKERKUNTZA**

1. Beste kultur sorkuntzen dokumentazio zentroekin harremanetan jarri (euskal eta erdal).

2. Datuen bilketaren garrantzia: agenda kulturaletan bertso saioak agertzea.

3. Plazaren ezagutzarako ikerketa: ez dugu ezagutzen, azterketa beharra.

4. Aztergai hauek aipatu dira:

- Antolatzaileak eta beraien motibazioak
- Egoera laborala
- Bertsogintza
- Baldintza teknikoak (soinu ekipoa, argiak, publikoarentzat lekua...)
- Gai-jartzaileak

Txapelketa

1. Aztertu ereduak, helburuak, maiztasunak, lan-baldintzak, egutegiak, eritmoak, ereduak, partehartzea, dimentsioa, prestigioa...

2. Taldekakoak bertsolaritzaren inguruko agente guztiak balioesteko plataforma: gai-jartzaileak, antolatzaileak, teknikariak...

Egile eskubideak **LANKU**

1. **Egile eskubideekiko kritikotasuna eta hausnarketa.**
2. **Egile eskubideak direla eta SGAEtik kanpo alternatibak ba al dauden aztertzea.**
3. **Beste kultura sortzaileek hartutako bideak ezagutzea.**

Beste jardun artistikoak **LANKU**

1. **Kultura sorkuntzarako elkarte eta elkarguneen berri izateko azterketa lana egin Euskal Herrian.**
2. **Kultura eragileen mapa ezagutu:** hizkuntza ikuspegia kontutan hartuta + euskaraz sortzen dutenak lehentasunez.
3. **Aliantzak: euskalgintza eta kulturgintza barne hartzen dituzten beste arte-sortzaile taldeekin** aliantzak sortzea elkarte gisa.
4. **Bertsoa beste arloekin uztartu (musika, antzerkia, dantza...) bertsolaritza zabaltzeko bide bezala.** Azken batean, fusioak lantzen jarraitu beste kultur esparruekin, entzule mota anitzagora iristeko: musikatuak, tramak, saio literarioak...
5. **Lankutik zirkuitu ezberdinak sustatu aktiboki,** eta Lanku tresna gisa erabiltzea kultur izaera sendotzeko.
6. **Antzerki zirkuituetan** (EAE) antzoki sarea kultura programa.

3.2. Transmisioa

Transmisio Sailak dokumentu honetan bildu ditu Bertsozale Elkartearen Gogoeta Estrategikoan jasotako lan-ildoak eta ideiak guztiak. *Bertsozale Elkartearen Etorkizun Ikuspegia 2018-2030* dokumentuaren osagarri eta jarraipen gisa planteatzen da eta Transmisio Sailaren lanerako baliagarri izango delakoan sortu da. Hona hemen dokumentuan lantzen direnak:

1. **Transmisioko lan-ildoak eta lehentasunak (Baiona eta Barriako gogoeta)**
2. **Hezkuntza kokapen tailerrean izandako ekarpenak (Barriako gogoeta)**
3. **Lan-ildo bakoitzean izandako ekarpen nagusiak (Baiona eta Barriako gogoeta)**

1. Transmisioko lan-ildoak eta hauen lehentasunak

Baionako tailerrak eman zuenarekin sintesia osatu zen, sortutako gaiak multzokatuz lan-ildoetan.

Barriako gogoetan, parte hartzaileek onarpena eman zioten lan-ildoen aurkezpenari eta aktaren laburpenari. Eta lan-ildo bakoitzaren lehentasun maila neurtzeko ariketa egin zen partaide guztien artean.

Lan-ildoen azalpena	Lehentasuna
<p>Oinarri pedagogikoak, ikerkuntza, formakuntza eta materialgintza</p> <p>Gozamena ardatz harturik, gure balioak definitu eta didaktika etengabeko iker-lerro bilakatu. Formakuntza iraunkorra eta material sorkuntza egin.</p>	%26
<p>Bertsolaritzaren katea artikulatu</p> <p>Aisialdia, bertso-eskolak eta Hezkuntza Arautuaren arteko zubiak indartu.</p>	%20
<p>Bertso eskolekin harremana</p> <p>Tokiko egoeraren arabera, elkarrearen eta bertso-eskolen egitekoak argitu eta elkarri lagundu, baliabideak eskaini.</p>	%19
<p>Aisialdiaren garrantzia, adin guztietan</p> <p>Bertsolaritza gozamenetik bizitzeko, harreman sareak sortzeko, kideak erakartzeko.</p>	%15
<p>Irismena</p> <p>Noraino eta nola iritsi nahi dugun erabaki.</p>	%13
<p>Finantziazioa</p> <p>Egonkortasuna lortu.</p>	%7

2. Hezkuntza kokapen tailerrean izandako ekarpenak (Barriako gogoeta)

Ezer baino lehen azter dezagun proposatu diren esaldiek izan duten atxikimendua:

1. Bertsozale Elkartea hezkuntza erakunde bat ere bada					
3	11	23	25	27	89
2. Bertsozale Elkarreak hezkuntzatik bertsolaritzaren transmisioan jarduteaz gain, hezkuntza eragile izatearen ardura eta kontzientzia hartu behar du.					
2	2	17	35	34	90
3. Kultur elkartea eta hezkuntza erakundea elkarri lotutako bi egitura ezberdinetan antolatu beharko genituzke.					
20	20	40	12	6	88

Hauek dira taldeetan adostu diren esaldi alternatiboak (jasota bezala bildu ditugu dokumentuan):

Elkarteak hezkuntzan duen arduraz

- “Bertsozale Elkarateak hezkuntzan (bertsolaritzatik harago) duen funtzio eta ardura aitortu eta eskatu behar dio bere buruari”. (1. taldea)
- “Bertsozale Elkarateak hezkuntzatik bertsolaritzaren transmisioan jarduteaz gain, hezkuntza eragile izatearen ardura DU eta kontzientzia hartu behar du”. (3. taldea)
- “Bertsozale Elkarateak hezkuntzatik bertsolaritzaren transmisioaz ari garenean, hezkuntzan duen eraginaren ardura eta kontzientzia hartu behar dugu”. (4. taldea)
- “Ikastetxeetan hezitzaile bezala baloreak transmititzeko ardura daukagu bestela ez gara neutroak” (1. taldea)

Hezkuntza erakundea gara edo kultur elkartea

- “Bertsozale Elkartea kultur erakunde bezala identifikatzen da (+ beste ardura batzuk ditu, hezkuntza...)”. (1. taldea)

Nola egituratu: Elkarate barruan ala kanpoan

- “Hezkuntza formalean bertsolaritza curriculumaren(*) barne egon dadin ahalegina egiten jarraitu behar du elkarateak, baina hori lortzen ez den heinean esparru honetan jarduten jarraitu behar dugu, horrek elkarateari suposatzen dion lan karga arintzeko egituran aldaketak bultzatuz eta elkaratek arlo kulturean egin nahi duen lana egiten jarraitu dezan bermatuz(*). Lurralde bakoitzaren artean dauden desberdintasunak kontuan edukiz”. (5. taldea)
- “Sozializazio / transmisio / hezkuntza (?) proiektuaren dimentsioak beste egitura bat eskatzen du”. (1. taldea)
- “Hezkuntzak hartu duen dimentsioarekin elkaratearen egitura birpentsatu behar da. Teilatupe bera blindajea?” (6. taldea)

3. Lan-ildo bakoitzean izandako ekarpen nagusiak (Baionako eta Barriako gogoeta)

Elkaratea hezkuntzan, eta hezkuntza elkaratean

Helburu estrategikoa: Elkarreak hezkuntzan duen ardurez kontziente egin: argitu zein den gure funtzioa/ekarpena hezkuntzan, eta kalitatez gauzatzeko, proiektua egokitu. Halaber, hezkuntzak Bertsozale Elkarrearen barruan duen dimentsioaz eta eraginaz kontziente egin.

Egitasmoak/xehetasunak:

- Terminologian oharra: "Transmisioa" ala "sozializazioa"?

Balioak, oinarri pedagogikoak, ikerketa, formakuntza eta materialgintza

Helburu estrategikoa: Gozamina ardatz eta zehar-lerro harturik, gure izaera eta balioak definitu (zer eta nola transmititu nahi dugun) eta oinarri pedagogikoak/didaktika etengabeko iker-lerro bilakatu. Horren araberrako hezitzaileen formakuntza iraunkorra eta material sorkuntza egin, hezkuntza arautuari, bertso-eskolei eta aisialdiari begira.

Egitasmoak/ xehetasunak:

- Gozamina oinarri eta zehar-lerro egin, gozamenetik ekiteko eta transmititzeko egitasmo, funtzionamendu, zein alor guztietan (metodologian, lan giroan...). Gozamina ez nahasi arduraik ezarekin edo esfortzurik ezarekin. Transmisioan ari dena motibatuta egotearen garrantziaz jabetu.
- Bertsolaritzaz zer balore transmititu nahi ditugun kontziente egin. Jabetu zer den transmititzen duguna eta zer den transmititu nahi duguna. Ikasleekin nola harremantzen garen aztertu. Sormena eta diziplinartekotasuna sustatu.
- Euskal Herriko eremu soziolinguistiko eta soziokultural ezberdinetan, zer eta nola eskaini aztertu.
- Egituratu etengabeko ikerlerketa, hezitzaileen formakuntza iraunkorra eta materialgintza adarrak.
- Bertso eskoletan metodologia berriak txertatzeko ideiak elkarbanatu eta sustatu. Bertso-ekoletarako materiala (mailakatua) sortu eta elkarbanatu.
- Hezkuntza Arautuan bertsoen bidez "bestelako" konpetentziak lantzeko aukerak ere esploratu. Hezkuntzaren erronkei bertsolaritzatik ekarpena egin.

Bertsolaritzaren katea artikulatu

Pedagogia eta hezkuntza markoan gertatzen diren berrikuntzei jarraipena egin eta gure proiektura ekarri.

Helburu estrategikoa: Aisialdia, bertso-eskolak eta hezkuntza arautuaren arteko zubilana eraiki eta harremanak indartu; helburuak eta oreka birplanteatu. Gainerako sozializazio eremuekiko loturak aztertu eta landu, sinergiak sortzeko.

Bertso eskolekiko edo tokian tokiko mugimenduekiko harremanak

Helburu estrategikoa: Kontzientzia hartu edo jabetu, bertso-eskolak edo tokian tokiko (herri, eskualde...) egiturak direla tokiko bertsolaritzaren eta bertako beharretara egokitutako ekimenen eragile nagusiak, baita bertsolaritzaren eta Elkarteren etorkizuneko kideen harrobi ere. Tokian-tokiko egoeraren arabera, Elkarteren eta bertso-eskolen egitekoak zein diren argitu, eta elkarri lagundu, baliabideak eskaini.

Egitasmoak/ xehetasunak:

- Bertso-eskolekiko harremana, ezagutza, konfiantza, komunikazioa landu etengabe.
- Bertso-eskolak sortu, egonkortu, indarberritu daitezten elkarteak lagundu, baliabideak eskaini, baina tokiko eskolaren egitekoa elkarteak bere gain hartu gabe.
- Bertsolaritzak behar dituen rol ezberdinak sustatzeko, bertso-eskolei baliabideak eskaini euren rol horien lanketa egin dezaten, edo berariazko bertso eskolak sortu rol horien formazioari begira (ahalduntze bertso-eskolak, gai-jartzaile eskolak, epaile eskolak, bat-batean sakontzekoak, heldu hasiberrientzat...).

Aisialdiaren garrantzia

Helburu estrategikoa: Kontzientzia hartu edo jabetu, aisialdiak sozializazio gune gisa duen garrantziaz eta pisuaz, bertsolaritza gozamenetik bizitzeko eta kideak zaletzeko, harreman sareak sortzeko, bertso-eskoletara zein Elkartera kideak erakartzeko, adin guztietan.

Egitasmoak/xehetasunak:

- Aisialdiko esperientzia eta ideia berriak elkarbanatu eta sustatu.

Irismena

Helburu estrategikoa: Kontzienteki erabaki nora iritsi nahi dugun eta nola. Geuk erabaki, noiz pauso berriak eman, noiz mugak jarri.

Egitasmoak/ xehetasunak:

- Bertsolaritza Euskal Herriko eskola publikoetan nahitaezko ikasgaia izan dadin eragin.
- Erabaki noraino hazi nahi dugun.

Finantziazioa

Helburu estrategikoa: Transmisioaren finantziazioan egonkortasuna lortu. Administrazioak herrialde guztietan bertsolaritzaren lanketa bermatu dezan Hezkuntzan eragin.

Egituraketa

Helburu estrategikoa: Hezkuntzak eskatzen duen kudeaketa eta kultur elkarrearen dinamika ahalik eta eraginkorrena izan dadin, egitura aukerak aztertu, irakasleek ere prozesuan parte hartuz. Egitura aukera bakoitzak herrialdeetan izango lukeen eragina ikusi, eta modurik eraginkorrenean antolatu.

Egitasmoak/xehetasunak:

- Egitura bakoitzak dituen aukerak eta arriskuak aztertu: Elkarrearekiko atxikimenduari dagokionez, proiektuari, egitasmoen antolaketari, kudeaketari, finantziarioari dagokionez.
- Aparteko egitura bat balitz, elkarrearekiko lukeen harremana eta autonomia aztertu; eta Euskal Herri mailako egitura izango litzatekeen ala herrialde bakoitzean bat legoken.
- Orain irakasleek dituzten balio positiboak bermatuko direla ziurtatu (irakasleak bertsolaritzaren ikuspegi orokorrean eragitea, elkarrearekiko atxikimendua, eskolara eramatea bertsoaren dibertsioa eta jolasa...).
- Irakasleen profilak landu eta lan baldintzak berrikusi.

3.3. Ikerkuntza

Ikerkuntza Sailak hemen bildu ditu Bertsozale Elkartearen Gogoeta Estrategikoan jasotako lan-ildoak eta horien baitako ideia zehatzagoak. *Bertsozale Elkartearen Etorkizun Ikuspegia 2018-2030* dokumentuaren osagarri eta xeheago gisa proposatzen da honakoa; esan gabe doa, Ikerkuntza Sailarentzat lanerako baliagarri izateko asmoz ere idatzi da. Hona hemen dokumentuan lantzen direnak:

1. **Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza Saileko Etorkizunerako ikuspegia 2019-2030**
2. **Ikerkuntzako lan-ildoak eta horien lehenespena (Barriako gogoeta).**
3. **Lan-ildoen xehetasunak (Baionako tailerra).**
4. **Lan-ildoaren arabera Ikerkuntza eta beste sailen arteko elkarlana.**

1. Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza Saileko Etorkizunerako ikuspegia 2019-2030

Baiona eta Barriako tailer eta gogoetek Ikerkuntzaren esparruan emandakoa laburbildu dugu egiteko bakarrean eta zazpi ekimenetan, ondokoetan:

EGITEKOA

Ikerkuntza jarraitua egin, eragin, aplikatu eta gizarteratu euskarazko ahozko kultur sisteman ere eragiteko bokazioz.

EKIMENAK

1. Euskarazko ahozko kultur mugimenduan eta sorkuntzan eragin
2. Ikerketen gizarteratzea eta aplikazioa sustatu, bai bertsolaritzan eta baita bertsolaritzatik haragoko esparruetan ere.
3. Hartzaileen araberrako jakintzaren dibulgazio mailakatua sustatu.
4. Ikerkuntza eta formazio jarraitua egin eta eragin, kanpoko eskaeren eta gure ikerketa beharren arteko oreka bilatuz. Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren eragile den heinean, sinergiak baliatuz bideratuko da ikerkuntza: euskal kulturako eta euskalgintzako kideekin, ahozko inprobisazio kantatuko kideekin, ikerketa erakundeekin...
5. Mintzola birpentsatu, zehar-lerrotasuna eta funtzioak argituz, ikerkuntzaren beharrei erantzun diezaien eta ikerketak susta ditzan.
6. Beste hizkuntza eta adierazpideetako balizko eskaerei erantzun.

7. Bertsozale Elkartek ezinbestekoa du etengabeko ikerketa eta gogoeta. Sail eta herrialdeetako zehar-lerro izango da ikerkuntza, eta, horrez gain, ikerkuntza beren-beregi bultzatuko duen iker talde bat ere izango du elkarteak.

2. Ikerkuntzako lan-ildoak eta horien lehenespena

2018 azaroko Barriako gogoetan Ikerkuntza sailean lehenetsitako egitasmoak izan ziren ondokoak. "Zer eta zertarako ikertu?" galdera egin eta gero, ondoko bozka kopurua jaso zuen ildo bakoitzak:

- Euskal ahozko kultur sisteman eragin, ahozkotasuna modu zabalean ulertuta: mugimendua eta sorkuntza. *61 bozka*
- Ikerketen gizarteratzea eta aplikazioa sustatu. *47 bozka*
- Hartzaileen araberako jakintzaren dibulgazio mailakatua sustatu. *40 bozka*
- XDZ garatzen eta dokumentazio sarea indartzen segi. *38 bozka*
- Kanpoko eskaeren eta gure ikerketa beharren arteko oreka bilatu. *34 bozka*
- Mintzolaren egitura birpentsatu. Zehar-lerrotasuna eta funtzioak. *33 bozka*
- Kulturarteko eskaerei erantzun, eragiten aritu gabe. *12 bozka*

3. Lan-ildoen xehetasunak (Baionako tailerra)

2018ko irailaren 22ko Baionako Ikerkuntza tailerrak eman zituen helburu estrategikoak nabarmendu genituen, eta horien baitako xede taktikoak eta egitasmo zehatzak multzokatu:

Euskal ahozko kultur ekosisteman eragin, ahozkotasuna modu zabalean ulertuta: mugimendua eta sorkuntza

Eragin hamaika talaiatik:

- Ikerketatik: bertsolaritzako ikerketak ez ezik beste generoi buruzkoak ere sustatu beharko lituzke.
- Transmisiotik:
 - Hezkuntza formalean hezkuntzak dituen ahozkotasun beharrei erantzun gozamen eta sorkuntzan oinarrituriko egitasmoen bidez

- Hezkuntza informalean eta aisialdian sortzaile gazteen elkarguneak bultzatu.
- Sustapenetik: Hainbat generotako harreman informaletarako topagunea sortu (Libertimendua, Bertso Eguna...-en antzeko zerbeit)
- Hedapenetik: Ahozko kultur sorkuntzen errekonozimendua eta hedapena bultzatu: ETBn, sarean...
- Egituratik: Ahozko beste generoen antolakuntza eragin (*Tximista batzuk*; iritzi desberdinak hots)
- Dokumentaziotik:
 - Ahozkotasunaren agenda martxan jarri
 - Baliabide konpartituak sarean jarri
 - Generoen arteko dokumentazio sarea sortu
- Formakuntzatik: Ahozkotasunari buruzko ikasketak antolatu.
- Filosofiatik: Mintzola tresna gisa garatu Elkargunetik euskaldun komunitatea ahaldunduko duten proiektuak sustatu eta bultzatu.

Ikerketen gizarteratzea eta aplikazioa sustatu

- Gizarteratzea: Egiten ditugun ikerketak tresna, maila eta gizarteratu modu eraginkorren.
- Aplikazioa: ikerketen ondorioak nola egokitu dagokien sailean aplikatuak izateko.

Jakintzaren dibulgazioa sustatu

- Atzeritarrentzat materiala sortu: Wikiak, liburuak, artikulak...
- Haurrentzat materiala sortu: Olentzerori gutuna idazteko estrategiak...
- Doinuen dibulgazioa sustatu
 - Doinuen errekonozimendu automatikoa
- Bertsogintzara etorri berrientzat materiala: liburu, web, manualak...
- Jakintzaren dibulgazio mailakatua hartzailearen eta bere helburuen arabera.

XDZ garatzen eta eguneratzen segi

- Dokumentazio Zentroaren aitortza eta finantzaketa bilatu

- Bertsolaritzan dokumentazio sarearen eguneratzea: XDZ oinarri izanik tokian tokiko elkarte eta erakundeekin saretzea.
- Interneten jarri beharreko ezinbesteko ondarea zein den identifikatzea.
- Bilketaren garrantzia ikusaraztea eta biltzen dena orekatzea (herrialde, kanon, genero...)

Beharretatik abiatuta ikertu:

Kanpotik heldu diren eskaera eta gure beharren arteko oreka bilatu.

- Iker-lerroak eguneratu eta gauzatu modu orekatuan (herrialdeak, generoa...):
 - Transmisioari lotutako ikerketak gauzatu
 - Bertsolariei buruzko ikerketa martxan jarri
 - Bertsogintza garaikidearen ikerketa sustatu, kanon guztiak kontutan hartuz eta hainbat ikerketa mailatan (tesi, monografiko, gogoeta eta abar)
 - Gai-jartzailletza ikertu.
 - Kanpora begira: bidelagunak bilatu bertsolaritzak gizarteko hainbat alorretan izan ditzakeen aplikazioak ikertzeko : memorian, ahozkotasunean, jendaurrekotasunean...

Egitura

- Ikerkuntza bertsolaritzaren gizarte mugimenduaren muinean dagoela ulertaraziz zehar-lerro gisa txertatu sailetan eta herrialdeetan.
- Birpentsatu Mintzolaren egitura (juridikoa, funtzionala,...)
- Ikerkuntza taldearen funtzioak berrikusi.

Kulturaren beharrei erantzun

- Beharrei erantzun eragin gabe, baina ateak eta begiak zabalik edukita.
- Munduko ikerketen berri jaso.

4. Lan-ildoaren arabera Ikerkuntza eta beste sailen arteko elkarlana

Puntuekin azpimarratu dira Ikerkuntzarekin batera elkarlanean ariko liratekeen sail edota erakundeak.

1. Euskarazko ahozko kultur mugimenduan eta sorkuntzan eragin **TRANSMISIOA – SUSTAPENA – XDZ**
2. Ikerketen gizarteratzea eta aplikazioa sustatu, bai bertsolaritzan eta baita bertsolaritzatik haragoko esparruetan ere **KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA – SUSTAPENA – TRANSMISIOA**
3. Hartzaileen araberako jakintzaren dibulgazio mailakatua sustatu **KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA – SUSTAPENA (LANKU) – TRANSMISIOA - XDZ**
4. Ikerkuntza eta formazio jarraitua egin eta eragin, kanpoko eskaeren eta gure ikerketa beharren arteko oreka bilatuz. Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren eragile den heinean, sinergiak baliatuz bideratuko da ikerkuntza: euskal kulturako eta euskalgintzako kideekin, ahozko inprobisazio kantatuko kideekin, ikerketa erakundeekin... **SUSTAPENA - TRANSMISIOA**
5. Mintzola birpentsatu, zeharlerrotasuna eta funtzioak argituz, ikerkuntzaren beharrei erantzun diezaien eta ikerketak susta ditzan **KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA – SUSTAPENA – TRANSMISIOA – XDZ**
6. Beste hizkuntza eta adierazpideetako balizko eskaerei erantzun **SUSTAPENA – TRANSMISIOA**
7. Bertsozale Elkartek ezinbestekoa du etengabeko ikerketa eta gogoeta. Sail eta herrialdeetako zehar-lerro izango da ikerkuntza, eta, horrez gain, ikerkuntza beren-beregi bultzatuko duen iker talde bat ere izango du elkartek **HERRIALDEAK**

3.4. Feminismoa

Feminismoa Sailak dokumentu honetan bildu ditu Bertsozale Elkartearen Gogoeta Estrategikoan jasotako lan-ildoak eta ideiak guztiak. *Bertsozale Elkartearen Etorkizun ikuspegia 2018-2030* dokumentuaren osagarri eta jarraipen gisa planteatzen da eta Feminismoa Sailarentzat lanerako baliagarri izango delakoan sortu da. Hona hemen dokumentuan lantzen direnak:

1. **Feminismoko lan-ildoak eta lehentasunak (Baiona eta Barriako gogoeta).**
2. **Lan-ildo bakoitzean izandako ideia zehatzak (Baiona eta Barriako gogoeta).**
3. **Ezadostasuna, eztabaida sortzen duten gai nagusiak.**

1. Feminismoko lan-ildoak eta hauen lehentasunak

Baionako eta Barriako tailerretatik, batetik, 4 lan-ildo nagusi atera dira, eta bestetik, datozen 12 urteetako lana egituratzeko genero plana zehazteko nahia.

Genero planak, beraz, 4 lan-ildo nagusi hauei ere erantzun beharko lieke.

Barrian, lan-ildo bakoitzaren lehentasun maila neurtzeko ariketa egin zen partaide guztiekin; emaitza horien arabera ordenatuko ditugu, jarraian, lan-ildoak (lehentasun maila %-etan adierazi dugu).

FORMAZIOA. Bertsozale Elkarteko langile eta bertsolaritzako eragile denentzat formazioa bideratu, profil bakoitzari egokituta

- 1.1. Formakuntza iraunkorra eta jarraitua antolatu, hartzaile mota bakoitzaren beharrei zuzenduta. **%32**
- 1.2. Formazioan sakondutakoa materialgintzara eta metodologiara ekarri.

Bertsozale Elkartearen egitura, harremanak, rolak lantzea, prozesuetan partaideon zaintza jarritz erdigunean

- 1.1. Genero ikuspegia kontuan hartzen duen eta zaintza erdigunean jartzen duen barne antolaketa landu:
- "Eztabaida osasungarrirako" espazioak zainduz. Diskurtso guztiei leku eginez. Partaide guztiei ateak zabalduz.
 - Deserosotasuna eta erresistentziak kudeatuz.
 - Espazio mistoak eta ez mistoak sortuz.
 - Egindako bidea aitortuz, partaide bakoitzari.
- 1.2. Erabaguneetan parekidetasuna gauzatu. Elkartearen dinamikan (gune formal eta informaletan) ematen diren botere harremanak identifikatu eta landu. **%27.5**
- 1.3. Bertsozale Elkartearen baitan indarkeria matxista egoerak bideratzeko protokoloa sortu.
- 1.4. Zaintzako bertsolaritza landu, pentsatu.

Aniztasunaren bisibilizazioa eta hedapena egin

- 1.1. Binarismoaz gaindiko egoeren inguruan jantzi. Terminologia berri, egoerak aurreikusi eta aterabideak eman, binarismoan kokatzen ez direnen parte hartzea bermatuz genero politikak diseinatzerakoan. **%24.5**
- 1.2. Parekidetasuna zaindu eta bertsolaritzaren aniztasuna bisibilizatuko duten edukiak, ekoizpenak, saioak sortu eta hedatu.
- 1.3. Elkartea eredu izan. Barne-aniztasuna kanpora begira adierazi eta ikusarazi.

Kopuru parekideak (%50) rol guztietan lortzeko pausoak eman Bertsozale Elkartearen barnean: sail guztietako ekimenetan, funtzionamenduan, lan moldeetan.

- 1.1. Elkarteko sailetan, zuzendaritzetan, lantaldeetan, egitasmoetan, gizon eta emakumeen arteko oreka bermatzeko, beharrezko irizpideak, helburu neurgarriak eta neurri zuzentzaileak adostu, landu. Rol banaketa orekatzen joan, kuotak parekidetasuna lortzeko tresna gisa ulertuta. **%16**

2. Lan-ildo bakoitzean izandako ideia zehatzak (Baiona eta Barriako gogoeta)

FORMAZIOA. Bertsozale Elkarteko langile eta bertsolaritzako eragile denentzat formazioa bideratu, profil bakoitzari egokituta

1. Gure beharrei erantzungo dieten adituak bilatu.

2. Hartzaile motak:
 - Elkarteko erabakiguneetan dauden kideak.
 - Elkarteko soldatapeko kideak.
 - Transmisioko lantaldeak: bertso-eskolak, aisialdiko hezitzaileak, Hezkuntza Arautuko irakasleak.
 - Sustapeneko lantaldeak: Epaileak (*epaile emakumeen ahalduntzea). Gai-jartzaileak (*Gai-jartzaile emakumeen ahalduntzea).
 - Hedapena eta komunikazioko lantaldeak.
 - Bertso mugimenduko hartzaileak: bertsozale arruntak, saio antolatzaileak, hedabideak.
 - Emakumeak. Gizonak. Espazio mistoak.

3. Formaziorako gaiak: Biolentzia matxista. LGTBIQ+ gaiak. Gorputz eta identitateen onarpena. Rolak. Zaintza lana. Emakumeen historia bertsolaritzan (bertso-eskolei zuzenduta). Emakume bertsolarien esperientzia.

4. Bertso-eskola feministak
 - Emakumeentzako ahalduntze bertso-eskolak: EH eta herrialde mailan. Adin guztiak eta gazteei zuzenduak. Oholtzaratzeko tailer monografikoa emakume bertsolarientzat, mugengan eragiteko: ahotsa, gorputza... Emakumeen topaketak.
 - Gizonentzako bertso-eskola feministak: Gizonezkoen sentsibilizaziorako, formakuntza eta hausnarketarako eremuak.

Bertsozale Elkartearen egitura, harremanak, rolak lantzea, prozesuetan partaideon zaintza jarriz erdigunean

1. Feminismoa zehar-lerroaren egituratzea.
 - Kontsulta eta kritika konstruktiborako taldea. Babesa.

2. Bertsozale Elkartean egituraren botere harremanen lanketa:

- Barne eta kanpo diagnostikatzeko bat egin, elkartearen dinamikan ematen diren botere-harremanak identifikatzeko.
- Oreekak/desorekak aztertu: generoaren araberrakoak, rolen araberrakoak (langile/borondatezko, bertsolari/zale...), adinaren araberrakoak, herrialdeen araberrakoak, organigrama, erabakiguneen osaketa, bileretako dinamika (hitza hartzean, aitortutako autoritatea, entzute aktiboa...), elkarteari lotutako gune informaletan (bilera osteko "mistika") nor eta nola parte hartzen duen... Identifikatu, esplizitatu eta lanketa bat egiteko formakuntza abiatu eta "gure guneetan" sozializatu (bertso-eskolak...).
- Horretan aditu diren dinamizatzailen bidez, botere harremanen inguruko gogoeta egin. Bertsozale Elkarteko sail, herrialde eta batzordekideei tailerrak eskaintzea, detektatzeko parekidetasunik gabeko egoerak.
- Desautorizazio mekanismoak identifikatu eta kudeatu, deseraiki.
- Hanka sartzeko baimena. Konplizitatea, zaintza.

Kopuru parekideak (%50) rol guztietan lortzeko pausoak eman Bertsozale Elkartean barnean: sail guztietako ekimenetan, funtzionamenduan, lan moldeetan

1. Kuota ez da helburua, kuota bidea da, eta diskurtsoan bere onura positiboan zentzuan formulatu behar da.
2. Irizpide kuota-formula bihurtu: Elkartetik komunikatu. Mugimenduko pertsonok transmititu behar dugu.

Transmisio tonua: positiboa eta konplexu gabea.

Bestalde, hauek dira sail bakoitzari dagokionez jaso diren proposamenak, ekarpenak, ideia zehatzak.

TRANSMISIOA

- 1. Ikastetxeetako, bertso-eskoletako irakasleentzat, aisialdiko hezitzaileentzat eta transmisio eragileentzat formazio plan sistematizatu antolatu. Formazioan sakondutakoa materialgintzara eta metodologiara ekarri.**

- Hezkuntza proiektuaren helburuetan genero ikuspegia txertatzea.

2. Bertso-eskolek ahalduz duden funtzioa landu bertso-eskolekin.

- Bertso-eskoletarako kurrikuluma landu, balio feministak barne-hartzen dituen. Bertso-eskoletarako materiala sortu.
- Gaur belaunaldi berriekin egiten ari den lankeza egokia den aztertu. Egindako bideak emaitzarik eman duen aztertu.

3. Ikastetxeetarako eta bertso-eskoletarako ikasmaterialean aniztasunaren bisibilizazioa eta hedapena zaindu.

SUSTAPENA

1. Eragile bakoitzari zuzendutako formazioa bideratu.

- Emakume bertsolarientzako ahalduz bertso-eskola. Gizon bertsolarientzako bertso-eskola feminista.
- Gai-jartzaile eskola
- Epailentzako formazioa
- Sustapen eragileentzat formazioa

2. Elkarteak antolatzen dituen plaza eta txapelketetan:

- Rol guztietan kopuru parekideak (%50) lortzeko pausoak eman.
- Zaintzako bertsolaritza landu, pentsatu. Plazako botere harremanak eta rolak identifikatu eta esplizitatu: nor-zeri eta zergatik kantatzen dion, nor "gidatzen" duen saioa, nor aitortzen dion antolatzaileak autoritatea... Plaza eta txapelketa berrasmatu betaurreko moreetatik (formatuak, egitura...).

3. Plazetan zirkuitu berriak sortu: aniztasunaren bisibilizazioan eragiteko (saio tematikoak), emakume gehiago/ezberdinak egoteko oholtzan, eta publikoa hezteko.

- Plazetako botere-harremanei eta rolei buelta ematen dieten formatuetako saioak bultzatu eta gai-jartzaileak formatu.
- Ahalduz saioak. Oholtzan aniztasuna gorpuztuko duten bertsolariekin saioak.

HEDAPENA

1. Elkarteko hedabideetan aniztasunaren bisibilizazioa zaindu.

- Elkarteko hedabideen komunikazioaren lanketa egin eta eredu izan.
- Hedapen taldeak egiten dituen edukietan (TB saio, bertsoa.eus) ikuspegi feminista sakontzea, aniztasuna bisibilizatzea.
- Berariazko ekoizpen tematikoak. Eduki eta egitasmo bereziak sortzea hedapen taldearen bidez eta baita hitzartutako irrati eta telebistei proposatuaz ere. Adib: emakume bertsolariei buruzko ekoizpenak: marrazki bizidunak...
- Parekideak ez diren edukien berri ez ematea.

2. Elkarteko hedabideetan kopuru parekideak (%50) zaindu.

3. Hedapeneko langileen formazioa bideratu.

IKERKUNTZA

1. Historiako emakume bertsolariak berreskuratu.

2. Plazaren bilakaera ikertzen jarraitu.

- Azterketa Soziologikoaren emaitzak modu dibulгатifiboan antolatzaileengana zabaltzea: plazetan zer gertatzen ari den (datuak), analisiak (zergatik gertatzen den), proposamen irekiak (saio antolaketa).
- Aztertu, plaza aniztetan ea bertsolari, gai-jartzaile, publikoaren artean aniztasuna ematen ote den eta ea zer pertzeptzio duten.

3. Aniztasunaren bisibilizazioan eragin. “Bertsolaria” eta “bertsolaritza”ren definizio berriak identifikatuz eta zabalduz.

4. Ikerkuntzako langileen formazioa bideratu.

5. Elkarteko ikerkuntza sailaren eskaintza eta ildoetan genero ikasketak txertatu.

KOMUNIKAZIOA

1. Bertsozale Elkartearen komunikazioan aniztasunaren bisibilizazioa eta hedapena zaindu.

- Ekintza komunikatibo denetan genero ikuspegia, ikuspegi feminista, presente izatea. Komunikazio estrategia etengabe landu.
- Komunikatzen denaren balorazio sistema, denboran zehar.

2. Bertsozale Elkartearen komunikazioan kopuru parekideak (%50) lortzeko pausoak eman.

3. Komunikazioko langileen formazioa bideratu.

EZZABALDU

3. Ezadostasuna, eztabaida sortzen duten gai nagusiak.

Ezer baino lehen azter dezagun Barriako goizeko tailerrean proposatu ziren esaldiek izan zuten atxikimendua:

1. Ikuspegi feminista zehar-lerro gisa lantzen jarraitu behar dugu, gure egitasmo guztietan helburu zehatzak identifikatuz eta pauso konkretuak emanez					
1	3	14	7	64	89
2. Ikuspegi feminista zehar-lerro gisa lantzen jarraitu behar dugu, gure egitasmo guztietan helburu zehatzak identifikatuz eta pauso konkretuak emanez, eta jauzi kualitatibo bat ematea dagokigu.					
0	0	9	15	64	88
3. Bertsozale Elkarateak ardura du bertsozaritza (bere osotasunean) parekidea izan dadin.					
7	8	18	24	31	88

Hauek dira adostu diren esaldi alternatiboak (jasota bezala bildu ditugu dokumentuan):

1. *“Bertsozale Elkartek bertsolaritza (bere osotasunean) parekidea izan dadin eragiteko ardura du”.*
2. *“Bertsozale Elkartek ez du edozein saiotan gertatzen den astakerien ardurarik. Baina berak antolatzen dituen gauzak ahalik eta parekideenak/feministenak izateko ardura du eta bertsolaritza (orokorrean) feminista izan dadin eragiten saiatuko da”.*
3. *“Bertsozale Elkartek jauzi kualitatiboa eman behar du bertsolaritza osotasunean parekidea izan dadin”.*

Eta bigarren esaldiari (*“ikuspegi feminista zehar-lerro gisa lantzen jarraitu behar dugu, gure egitasmo guztietan helburu zehatzak identifikatuz eta pauso konkretuak emanez, eta jauzi kualitatibo bat ematea dagokigu”*), ekarpen hauek egin zitzaizkion talde batzuetan (jasota bezala bildu ditugu dokumentuan):

1. Formazioa jauzi kualitatibo moduan.
2. Aniztasunari ahotsa emateak ondorengo jauzi kualitatiboetan eragingo du.
3. Plazan kuantitatiboki parekidetasuna urrun dago. Nola egin eraginkortasunez berdintasunerantz gure bizialdian emaitzak ikusi ahal izateko?
4. Pauso konkretuak emateaz gain, jauzi kualitatibo bat emateak esan nahi du egingo ditugun pausuak kualitatiboki ezberdinak izan behar direla, beste era batekoak.

Baionako eta Barriako tailerretan, eztabaida edo tentsioa sortzen zuten gaiak

Eztabaida, tentsioa edo ikuspegi kontrajarriak nagusiki gertatu ziren, elkarteak izan behar duen jokabideari dagokionez, elkarteak berak antolatzen ez dituen espazioetan; alegia, bertsolaritzako beste eragileekiko.

Bertsozale Elkarteari beste eragileek antolatzen dituzten ekimenekiko/espazioekiko, zer jokabide hartzea dagokion, graduazio ezberdinetako proposamenak jaso dira:

- Bertsozale Elkartea bere jokatzeko moduaz izatea eredu, erreferente, besteentzat.

- Bertsozale Elkarateak bere irizpideen berri komunikatzea beste eragileei.
- Bertsozale Elkarateak aholku ematea beste eragileei.
- Bertsozale Elkarateak parekidetasuna zaintzen ez duten ekimenetan/eragileekin elkarlanik ez egitea.
- Bertsozale Elkarateak parekidetasuna zaintzen ez duten ekimenetan/eragileekin, neurri zehatzak hartzea.

Eta nagusiki 3 gairen bueltan agertu dira ikuspegi ezberdin horiek:

- Elkarateak antolatzen ez dituen plazei (bertso-saioei) begira.
- Elkartetik kanpo gertatzen diren indarkeria matxista egoerei begira.
- Elkarateak feminismoan egiten duen lana komunikatzeko moduari dagokionez: Elkarateak proiektuak komunikatu behar dituen, ala Elkaratek bere irizpideak ere komunikatu behar dituen.

Graduazio ezberdinetako ikuspegiak islatzeko, hara hemen gai bakoitzari lotuta jaso diren ekarpen adierazgarrienak:

Elkarateak antolatzen ez dituen plazei begira

- Gida bat argitaratu kanpoko eragileentzat Elkaratearen irizpideen berri emanez. Oso argi jarri gure kuotak zeintzuk diren.
- Neurri konkretuak hartzen hasi, kuota oso desorekatuak sumatzen direnekiko harremanean. Detektatutako hutsuneak bistan jarri.
- Lanku tartean denean: zerbitzuak ez eskaini parekidetasuna bermatzen ez duenari. Eztabaida bultzatu 2020-2022 aplikatzeko

Elkartetik kanpo gertatzen diren indarkeria matxista egoerei begira

- (Indarkeria) Tolerantzia 0 (diskurtsoan).
- Eraso salatzeke gune/espazio/aukerak sortu. Konfiantzazko espazioen sorrera/gune seguruak.
- Elkarate barruan posizionatu eta erasotzailearekiko neurriak hartu (Elkaratearen egiturari). Eraso jaso duenari babesa eskaini (Elkarate moduan ere bai).
- Biolentzia Matxista bertsolaritzaren ekosisteman detektatu (analisi) eta eragiten hasi. Eraso sexistei buruzko informazioa jaso sistematikoki (kanpo eta barru). Zer jasoko den zehaztu beharko da, ardurak... Eraso/gutxiespen sexistak,

biolentzia sinbolikoa identifikatu eta horretan eragin, neurriak hartu (kanpo eta barne).

Elkartearen komunikatzeko moduari begira

- Genero taldeko lanketaren barne komunikazioa.
- Elkarteko hedabideen komunikazioaren lanketa eta eredu izan.
- Elkarreak bertso munduko beste eragileei orain arte egindako bidea plazaratzea.
- Sentsibilizazio kanpaña. Balioak zabaldu: bertso-eskolak, Hezkuntza Arautua, bazkideak...
- Generoari dagozkion gogoeta ideologikoak, Elkartearen baitan erabaki direnak, publikoki komunikatu, kanpo eta barne.

EZZABALDU

3.5. Komunikazioa

Komunikazio Sailak dokumentu honetan bildu ditu Bertsozale Elkartean Gogoeta Estrategikoan jasotako lanketarako gaiak eta ideiak guztiak. *Bertsozale Elkartean Etorbizun Ikuspegia 2018-2030* dokumentuaren osagarri eta jarraipen gisa planteatzen da eta komunikazio sailarentzat lanerako baliagarri izango delakoan sortu da. Hona hemen dokumentuan lantzen direnak:

1. **Komunikazio Sailak landu beharreko gaiak eta lehentasunak (Baiona eta Barriako gogoeta)**
2. **Jarduteko modua esfera publikoan, ondorioak (Barriako gogoeta)**
3. **Komunikazio sailaren lan-ildo nagusiak**
4. **Lan-ildoak azalpenekin eta Barrian eta Baionan jasotako ekarpenekin (Baiona eta Barriako gogoeta)**
5. **Beste sailetako lanketetan komunikazioari dagokionez atzemandako ideiak**

1. Komunikazio Sailak landu beharreko gaiak eta lehentasunak

Komunikazio Sailak esfera publikoa izan du hizpide 2018ko Bertsozale Elkartean Gogoeta Estrategikoan. Baionan zein Barrian egindako lanketetako memoriak hemen aipatzen diren dokumentuetan, Gogoeta Estrategikoari buruzko karpetan, daude.

- 2018-09-22 Iraileko Tailerren Memoria (komunikazioa)
- 2019-03-01 Azaroko Tailerren Memoria (komunikazioa)

Gai bakoitzari emandako lehentasuna beheko laburpen taulan dago jasota. Oro har, parte hartzaileek onarpena eman diote Baionako tailerretako ondorioen laburpenari.

Landu beharreko gaien azalpena	Baionan	Barrian
Proiektuaren kokapenaren birdefinizioaren beharra	10 gometx	69 gometx
Barne komunikazioan arreta jarri	8 gometx	43 gometx
Elkartearen komunikazio estrategia: birdefinizioaren arabera berrikusi	7 gometx	25 gometx
Elkartearen kanpo irudiaren azterketa	7 gometx	42 gometx
Elkartearen tonua	2 gometx	47 gometx
Gatazken kudeaketa	5 gometx	37 gometx

2. Jarduteko modua: esfera publikoan

Hona hemen esaldiek izan duten atxikimendua:

1. (Orain arte bezala...) Proiektuak komunikatu eta haien bitartez harreman publikoak, lankidetzak, gure diskurtsoa zein balioak erakusten jarraituko dugu.					
	1	1	7	4	65
2. Proiektuak komunikatu eta aldi berean erakundearen komunikazioa landuko dugu, harreman publikoak, lankidetzak eta balioak modu esplizitoagoan erakutsiz.					
7	11	2	32	14	8
3. Elkaratearen proiektuez harago, beste erakundeekiko harreman publikoak eta lankidetzak esplizitokiko erakutsiko ditugu.					
41	15	0	13	6	0

Komunikazio Batzordean gaia aztertu eta zera ondorioztatu da:

Barriako lanketaren ostean, esfera publikoan jarduteko moduari buruzko lanketaren emaitzak aztertuz, Komunikazio Batzordeak ontzat emandako esaldia:

"(Orain arte bezala...) Proiektuak komunikatu eta haien bitartez harreman publikoak, lankidetzak, gure diskurtsoa zein balioak erakusten jarraituko dugu."

Ildo estrategikoei lotutako proiektuetan komunikazio lan esplizituago bat egiteko nahia ere ikusi da, horrek zer esan nahi duen zehazterakoan iritzi desberdinak eta zalantzak agertu diren arren. Zalantza horiek argitu eta lan esplizituagoa bideragarria den erabakitzeko, praktika onen gida bat lantzeko urtebeteko epea hartuko da. Tarte horretan, gaia elkarteko batzorde ezberdinetan aztertu - komunikazio, kudeaketa zein zuzendaritza batzordeetan - eta erabaki zehatzak adostuko dira.

3. Komunikazio Sailaren lan-ildo nagusiak

EGITEKOA: Bertsozale Elkartearen komunikazio politika osoa garatu. Hartzaille bakoitzari egokitutako diskurtso propioa eta koherentea egin, eta garaian garaiko bitartekoen erabilera optimizatu.

EKIMENAK:

1. Bertsozale Elkartearen misio eta bisioa aintzat hartuz, komunikazio politika osoa definitu, garatu eta garaira egokitu.
2. Barne kohesioari arreta berezia eskaini; Elkarteko kideen arteko barne komunikazioa garatu; hartzaille talde ezberdinak identifikatu, eta horiengana iristeko mezu eta erreminta egokituak landu.
3. Kanpo komunikazioari dagokionez: elkartearen proiektua gizarteratu; irudi bateratua eta askotarikoa (lurraldez, belaunaldiz eta generoz) landu; diskurtso propioa eta koherentea garatu; erdal hizkuntzen erabilera definitu; hartzaille talde ezberdinak identifikatu, eta horiengana iristeko mezu eta erreminta egokituak landu.

4. Proiektuak komunikatu eta haien bitartez harreman publikoak, lankidetzak, Elkartearen diskurtsoa zein balioak plazaratuko dira. Beharren arabera komunikazio lan esplizituago bat nola egin daitekeen aztertuko da.
5. Barne eta kanpo komunikazioan, garaian garaiko komunikazio bide eta gunetan bertsolaritzak osotasuneko lekua izan dezala bermatu.
6. Sail eta herrialdeekin zehar-lerroan egituratuta egongo den komunikazio atal sendo eta iraunkorra garatu.

Baionan eta Barrian ateratako gaiak Komunikazio Sailaren jarduerarako lan-ildo nagusietan kokatu dira.

4. Lan-ildoak azalpenekin eta Baionan edo Barrian jasotako ekarpenekin

Puntuekin azpimarratu dira lan-ildo horretan parte hartuko duten sailak.

Bertsozale Elkartearen misio eta bisioa aintzat hartuz, komunikazio politika osoa definitu, garatu eta garaira egokitu.

2018ko gogoetaren baitan, irailean, Baionan esfera publikoari buruz egindako lan saioan, Bertsozale Elkartearen proiektuaren kokapena berraztertzeke eta komunikazio estrategia horren arabera doitzeko beharrak aipatu ziren. Proiektuaren kokapenari buruzko gogoeta eta erabakia elkarte osoari dagokio. Komunikazio sailak elkartearen helburuak erdietsiko dituen estrategia eramango du aurrera, garaian garaiko aldaketetara egokituz.

Barne kohesioari arreta berezia eskaini. Elkarteko kideen arteko barne komunikazioa garatu. Hartzaille talde ezberdinak identifikatu, eta horiengana iristeko mezu eta erreminta egokituak landu.

1. **Elkarte ezberdinen arteko komunikazio bateratua eta kohesioa. HERRIALDEAK**

- Markaren adostasuna
- Erreminten bateratzea
 - Elkartearen balioak eta filosofia transmititu elkartera datorren orori.

- Herrialdeen indarrak, ahulezia: ikasi eta eskaini.
- Harremanen zaintza ***
 - Giza baliabideen funtzioa izango duen norbait identifikatzea
 - Ardura kolektiboa ere izatea

*** Ez da komunikazio sailaren ardura bakarrik, elkarte guztiarena da.

2. Komunikazio taldearen indarra aprobetxatu lanketa berriak eta bateratuak egiteko.

3. Bazkideekiko komunikazioa

- Bazkide politika eta hauekin dugun harremana aztertu. Herrialdeetatik eta Euskal Herritik egiten da, berrikusi. **HERRIALDEAK – IDAZKARITZA**
 - Zaindu eta parte hartzea bultzatu
 - Ekintza eta aukera berriak eskaini.
 - Komunikazioa areagotu: proiektuari buruzko ikus-entzunezkoak helaraziz...
 - Bazkideei zerbait ludikoa eskaintzeko aukerak aztertu.
 - Batzar Orokorrak arindu. Bazkideengana beste era batera iristeko erremintak ditugu.
 - Zuberora, Lapurdi eta Baxenabarre: postaz bidalketak berandu iristen dira. Hobetu sistema. **HERRIALDEAK**

4. Bertso-eskolekiko komunikazio estrategia bir-prentsatu. Herrialdeei tresnak proposatu **TRANSMISIOA**

5. Foroak **SUSTAPENA**

6. Euskarriak berritu

- BertsoZalea berrikusi: edukiz, formaz.
 - Herrialdeetako ekimenen euskarriak txertatzeko baliatu ("enkarteak"...).
- HERRIALDEAK**

Kanpo komunikazioari dagokionez: elkartearen proiektua gizarteratu; irudi bateratua eta askotarikoa (lurraldez, belaunaldiz eta generoz) landu;

diskurtso propioa eta koherentea garatu; erdal hizkuntzen erabilera definitu; hartzaile talde ezberdinak identifikatu, eta horiengana iristeko mezu eta erreminta egokituak landu.

Proiektuak komunikatu eta haien bitartez harreman publikoak, lankidetzak, Elkartearen diskurtsoa zein balioak plazaratuko dira. Beharren arabera komunikazio lan esplizituago bat nola egin daitekeen aztertuko da.

1. Posizionamenduari buruzko gaietan Elkartearen irizpideen arabera jokatu.

- Barne komunikazioa, pedagogia lana, barne bileren bitartez, batzordeetan parte hartuz.
- Gatazka historikoen memoria ez galdu.

2. Estilo, tonu, ugariagoa. Subjetuen arabera eta helburuen arabera.

- Gazteengana hurbiltzeko hizkuntza berriztu eta aldatu. Bertsoaren alor ludikoa gazteentzako erakargari bezala saldu, ohiko irudi tradizionaletatik at
- Ahots propioa. Nortasuna.
- Iritzigintza, guretik.
- Tonu ludikoa landu.

3. Elkartearen irudiaren azterketa

- Elkartearen irudi serioa leundu sinesgarritasuna galdu gabe. Prebentzioaren galerarekin adi.
- Bertsolaritzaren mugimenduko kideengana gerturatu: bertso-eskoletara...
- Bertsolaritzaz haragoko eragile eta norbanakoek Elkarteari buruz duten irudia aztertu.
- Heltzen ez garen lekuetara nola heldu. Espektroa zabaldu.
- Ze balio proiektatzen ditugu elkarre bezala:
 - Txapelketan
 - Hezkuntza Arautuan
 - Webgunean

4. Sare sozialak

- Sare sozialen estrategia definitu
- Denerako protokoloa ezin dugu izan. Malgutasuna, ikuspegi orokorra.

- Parte hartzea neurrian, alferrikako ika-mikei bide eman gabe.
- Bestelako erakunde/proiektuetan dituzten ereduak aztertu.

5. Genero ikuspegitik aniztasuna adierazteko terminologia, estiloa, txertatu

- Izen-emate formularioetan aniztasuna adierazteko aukerak eskaini.

6. Elkartearen dimentsioaren ondorioak ulertarazteko prozesuak esplikatuz eta sozializatu beharko lirateke

- Lan bolumenari buruzko kontzientzia piztu.
- Prozesuak arintzeko modu bat bilatu behar da.

7. Krisi egoerako kanpo komunikazioa. Aurreikusi eta irizpideak jarri.

Barne eta kanpo komunikazioan, garaian garaiko komunikazio bide eta gunetan bertsolaritzak osotasuneko lekua izan dezala bermatu.

Sail eta herrialdeekin zehar lerroan egituratuta egongo den komunikazio atal sendo eta iraunkorra garatu.



5. Beste sailen lanketetan Komunikazio Sailari dagozkion gaiak ere atzeman dira

IKERKUNTZA

- Ikerketen gizarteratzea eta aplikazioa sustatu, bai bertsolaritzan eta baita bertsolaritzatik haragoko esparruetan ere.
- Hartzaileen araberako jakintzaren dibulgazio mailakatua sustatu.

SUSTAPENA

- Plazako irizpideak helarazteko Komunikazio estrategia landu. Elkartek, beste kultur eragileekin elkarlanean, gai honekiko sentsibilitatea eta kontzientzia sustatu.
- Saiok antolatzeke gida: tokian tokiko antolatzaileei gure balioen berri eman.
- Proiektuak transmisio: Hitzetik Hortzera, www.bertsoa.eus proiektuetan presentzia antolatzaile eredugarriekin.
- Sortzaileen lan baldintza onak bermatzea: diskurtso sendo bat sortu behar da ondo azaltzeko zergatik den hau beharrezkoa.
- Hedabideetan presentzia: EITB kultura bezalakoetan.
- Kanonak eta bertsogintza foroa:
 - Defendatu behar dira definizio kultural anitzak edo artista izateko modu ezberdinak bertsolaritza munduan.
 - Lan artistikoaz jarduteko foroak, espazioak...
 - Epaileak, gai-jartzaileak, formatzeko, eztabaidatzeko, berriak erakartzeko... foroa/gunea/metodoa.
 - Bertsolarien artekoa.

TRANSMISIOA

- Transmisiorako proiektuen atal komunikatiboaren jarraipena egin: bertsoeskola.eus, bertsoikasgela.eus...

GENEROA

- Elkartearen komunikazioan aniztasunaren bisibilizazioa eta hedapena zaindu.
- Elkartearen komunikazioan kopuru parekideak (%50) lortzeko pausoak eman.
- Komunikazioko langileen formazioa bideratu.

HEDAPENA

- Komunikazioaren ikus-entzunezko edukien beharra eta hedapenarekiko elkarlana diseinatu lau urtez behin.
- Eremu komunitario irizpideak adostu lau urtez behin: sare sozialetako politika, esaterako.
- Berriazko ekoizpen tematikoak. Eduki eta egitasmo bereziak sortzea eta hitzarmena dugun hedabideetan ere sustatzea.

EZZABALDU

3.6. Hedapena

1. Hedapen Sailaren lan-ildo nagusiak
2. Ildo bakoitzaren ideiak
3. Beste sailekin gurutzaketa

1. Hedapen Sailaren lan-ildo nagusiak

EGITEKOA: Bertsogintza eta bertsolaritza hedatu errealitate guztiak aintzat hartuz eta garaian garaiko bitartekoak erabiliz.

EKIMENAK:

1. Eduki-aniztasuna gaietan eta formetan: bertsogintza eta bertsolaritzaren errealitate osoa erakusteko publiko motaren araberako ekoizpen berriak sustatuko dira.
2. Hedabideen eta sare sozialen errealitate berrira egokitu zabalkunderako aukera berrien eta bertsolarien jardunaren zaintzaren arteko oreka bilatuz.
3. Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren hedapenerako komunikazio-bideak landuko dira sortzaileekin.
4. Gure hedabideen finantzaketaren bideragarritasuna bilatu.
5. Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren hedapenerako Bertsozale Elkartearen balizko elkarlanen izaera landuko da hedabideekin eta ekoiztetxeekin.
6. Hartzailleen audientzien eta hedapenerako bide eraginkorren azterketa burutu.

2. Ildo bakoitzaren ideiak

Hedapenaren Plan Estrategikoa garatu behar da lan-ildo hauek garatzeko.

Eduki-aniztasuna gaietan eta formetan: bertsogintza eta bertsolaritzaren errealitate osoa erakusteko publiko motaren araberako ekoizpen berriak sustatuko dira

1. Bertsolaritzaren **aniztasuna erakutsi** behar da bertsolaritzaren hedapena egiten denean. Ideia hauek agertu dira gai honen baitan.
 - Pentsatu behar da zein den zabaltzen den bertsolari-eredua. Perfil, genero eta rol anitzak ikusarazteko saiakera egin behar da.
 - Askotariko bertsozaleak daudenez, askotariko edukiak sortu behar ditugu.
 - Hedapen-taldeak baliabideak behar ditu bertsolaritza anitzagoa erakusteko. Autofinantzaketa izan daiteke baliabide gehiago lortzeko bidea?
 - Grabazio-kopurua igota, aukera gehiago izango genuke publiko orokorraren interesei erantzuteko (polifonia eta generoa).
 - Hedapenak bertsogintzan duen eraginaz kontziente izanda, helburuak eta irizpideak markatu behar dira beste sailekin koherentzian.
2. **Askotariko formak** izan ditzakete bertso-edukiek.
 - Publiko motaren arabera edukiak dibertsifikatzea (edukien dibertsifikazioa vs. edukien ikusgarritasuna).
 - Bertso-edukiak gaurkotasunarekin lotzea, medio handietan zabaltzen ez den ikuspegi batetik.
 - Ikus-entzunezkoetan, ez-ohiko figurak eta formatuak sortu daitezke.
 - Haurrentzako produkzioa, marrazki bizidunak.
 - Orain arte plazan bildutako hedatzea izan da lan-ardatza. Hemendik aurrera sortu daiteke edukia bera bertso-sormenean eraginez? Eta zalantza, zein neurritan baldintzatu dezakegu plaza, ekoizpenaren mesedetan?

Hedabideen eta sare sozialen errealitate berrira egokitu zabalkunderako aukera berrien eta bertsolarien jardunaren zaintzaren arteko oreka bilatuz

1. **Sare sozialak** publiko berrietara iristeko aukera dira:
 - Ondo planifikatu behar da horietan egiten den zabalkundera
 - Hartzaileek irizkiak emateko eta iruzkinak egiteko aukera izan ohi dute, baina gogoetan zalantza agertu da:
 - Hedapenean zein leku egin behar zaio irakurlearen, ikuslearen... iritzi emateari? (sare sozialen erabilera, iruzkinak...)
 - Hedapenean zein leku izan behar du gai-jartzaileen, epaileen eta bertsolarien lanen inguruko kritikak? (kritika positiboak nahiz negatiboak)

2. **Hedabide** asko ditugu eskura baina:
 - Optimizatu egin behar da, medioen funtzioak zehaztuz edukiak bikoiztu gabe.
 - Sareko beste atariak baliatu daitezke bertsolaritzaren erreferentziak sartzeko: Wikipedia, Argia... eta horiekin hitzarmenak lotu finantzabide gisa?
3. **Errealitate berriak** hedabide berriak ekarri dizkigu eta ekarriko dizkigu:
 - Mugikorreko aplikazioak, adibidez: JARRION, gure aplikazio propioa...
4. **Bertsolarien jarduna zaindu** behar dugu, eta **sortzaileak zaindu** behar ditugu, baina:
 - Nola eta noraino babestu behar da?

Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren hedapenerako komunikazio-bideak landuko dira sortzaileekin.

1. **Bertsolarien jarduna zaindu** behar dugu, eta **sortzaileak zaindu** behar ditugu, baina:
 - Nola eta noraino babestu behar da?
2. **Konfiantzaz**, jaso eta zabaldu behar direnen buruzko irizpideak sortzaileekin adostu.
3. Sortzaileen eta bere lanaren eta irudiari buruzko **definizio berria**.

Gure hedabideen finantzaketaren bideragarritasuna bilatu

Hauk dira lan-ildo honen baitan ateratako ideiak:

1. Internet bidezko **estrategia berria**: bideragarritasuna, irismena, ekoizpen laburrak...
2. **Beste hedabideekin** hitzarmenak sinatu ditzakegu bertso-dukien zabalkunderako, eta hori diru-iturri bilakatu daiteke?
3. **Hartzaileei** harpidetzak, ikustaldiak kobratzea...

4. **Sponsorrak** bilatu gure hedabideak finantzatzeko.

Bertsogintzaren eta bertsolaritzaren hedapenerako Bertsozale Elkartearen balizko elkarlanen izaera landuko da hedabideekin eta ekoiztetxeekin.

1. **Hedabideak:** Bertsozale Elkartek ze mailatako ekarpenak egin beharko lituzke lekuan lekuko hedabideetan? Hitzarmenak eragin, diruz lagundu...
2. **Ekoiztetxeak:** eduki espezializatuak sortzeko (marrakiz bizidunak...) elkarlan-hitzarmenak sustatu daitezke hainbat ekoiztetxerekin.

Hartzaileen audientzien eta hedapenerako bide eraginkorren azterketa burutu.

Azterketa hau egiterakoan aintzat hartu beharreko ideiak dira:

1. Etorkizuneko hedapena, **kanal berrietara** egokitzea: sare sozialak, TB ordenagailuak eta eduki pertsonalizatuak
2. Zailtasuna: **datuak lortu** (audientziak) eta **bertsozaleei galdetu** (azterketa soziologikoa)
3. Erreferentzialtasuna: zein da gure **Targeta**? Zeinek izan behar luke?
4. **Publiko motak identifikatu**, zer kontsumitzen duen jakin... eta horren arabera eskaintza egin.
5. **Telebistaren zentralitatea:** galdu da? Edo ikusteko modua aldatu da?
6. **Telebista eta Internet arteko dikotomia** geroz eta lausoagoa da. Gure produkzioak erantzuten al dio horri?

3. Beste sailekin gurutzaketa

IKERKUNTZA

- Hartzaileen araberako jakintzaren dibulgazio mailakatua sustatu. KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA - SUSTAPENA (LANKU) – TRANSMISIOA – XDZ - FEMINISMOA
- Mintzola birpentsatu, zeharlerrotasuna eta funtzioak argituz, ikerkuntzaren beharrei erantzun diezaien eta ikerketak susta ditzan. KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA – SUSTAPENA – TRANSMISIOA – XDZ - FEMINISMOA

SUSTAPENA

- Antolatzaileetara iritsi eta plazako irizpideak helarazteko moduetan aukera ezberdinak atera dira: KOMUNIKAZIOA – HEDAPENA
 - Komunikazio estrategia: Elkarrekin gai honekiko sentsibiltatea eta kontzientzia sustatzea beste kultur eragileekin elkarlanean.
 - Proiektuak transmisio: Hitzetik Hortzera, www.bertsoa.eus proiektuetan presentzia antolatzaile eredugarrienekin.
- Sortzaileen lan baldintzak hobetzea KOMUNIKAZIOA - HEDAPENA
 - Hedabideetan presentzia: EITB kultura bezalakoetan agertzea.
- Gai-jartzaileak TRANSMISIOA - HEDAPENA
 - Gai -jartzailetzari eta epailetzari (eredu egokiei batik bat) hedapena eman gure egitasmoetan.

Sail, Herrialde, Lanku eta Mintzolarekin lankidetzan

Hedapenaren zereginetako bat sailetatik, Lankutik, Herrialdeetatik eta Mintzolatik antolatzen diren egitasmoen zabalkundea denez, honako metodologia hau proposatzen da 2030 arteko epealdira begira:

1. Herrialde, Lanku, Mintzola eta Sail bakoitzarekiko lankidetzaren espezifikotasuna detektatu.
2. 2030 artekoa lau urtez behingo epealditan banatu dugunez, eremu bakoitzarekin lau urtez behingo hedapen aurreikuspena lantzea, eremu bakoitzeko lau egitasmoaren gainean.
3. Sail arteko lankidetzaren estuagoa behar duten proiektuak aurreikusi eta elkarlan hori diseinatu proiektu bakoitzaren gainean.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa:

- Ikus-entzuneko edukien artxibatze prozedurak, lan erritmoak eta baliabideak bermatu lau urtez behin.
- Ikus-entzuneko datu basearen barruko antolaketa indartu: gaur egun Xenpelar/Bertsoa.eus dena (bertso-ikasgela barne) Elkarte osoko zerbitzuetara zabaldu/zentralizatu.
- Bertsolarien ibilbidea jasota uzteko proiektuan, dokumentazio alorra.
- Bapatean antologia
- XDZ-ko hedapen politika eta irizpideak zehaztu lau urtez behin

Komunikazioa:

- Bertsozale Elkarteko ekimenen Hedapena eta Komunikazioa.
- Komunikazioaren ikus-entzuneko edukien beharra eta Hedapenarekiko elkarlana diseinatu lau urtez behin.
- Eremu komunitario irizpideak adostu lau urtez behin: sare sozialetako politika, esaterako.
- Editore mahaian parte hartu.

Transmisio Saila:

- Transmisioan materialgintzan ikus-entzuneko formatuan egin asmo duen ekoizpenaren berri izan eta norabide horretan lan egiteko bideak aztertu lau urtez behin.
- www.bertsoikasgela.eus eta www.bertsoeskola.eus guneekin eduki lankidetzara adostu.
- Transmisio saileko egitasmoen hedapen politika eta irizpideak zehaztu lau urtez behin.

Sustapen Saila:

- Sustapen saileko egitasmoen hedapena landu eta zehaztu lau urtez behin.
- Txapelketa Nagusiari begira lanketa berezia eginaldi bakoitzean.
- Egite eskubideak sarean. Lege markoa eta sareko hedapena legeztatze bidea.
- *Bapatean* antologia.

- Bertsolarien ibilbidea jasota uzteko proiektua.

Ikerkuntza Saila:

- Ikerkuntza saileko egitasmoen hedapen politika eta irizpideak zehaztu lau urtez behin.
- Bertsolarien ibilbidea jasota uzteko proiektuan, ikerkuntza alorra.

Administrazioa:

- Diru laguntzak bideratu eta zuritzeko prozedurak.
- Asteroko bidai gastuen kontua arintzeko txartel zerbitzuaren aukera.
- Inbertsio prozedurak.

Genero batzordea:

- Hedapen irizpideekin kontrastea generoari dagokionean
- Historiako emakume bertsolariak ikus-entzunezkoa garatzen hasi beste sailekin, tartean Genero batzordea

Herrialdeak:

- Herrialdeetako egitasmoen hedapen politika eta irizpideak zehaztu lau urtez behin.
- Herrialdeetako txapelketen hedapenaren lanketa berezia.

Lanku Bertso Zerbitzuak:

- Lankuko proiektuen hedapen plangintza eta prozedurak zehaztu lau urtez behin
- Lankuk ikus-entzunezko formatuan egin asmo dituen ekoizpenaren berri izan eta norabide horretan lan egiteko bideak aztertu lau urtez behin.
- Bertsolarien ibilbidea eta lana jasota uzteko 10 urteko plangintza egin: biografia eta bertso bilduma bat behintzat osatu. (Sail arteko lanketa): (Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Anjel Mari Peñagarikano, Iñaki Murua...) Zerrenda posible bat eta lan metodologia bat pentsatu.

Mintzola Ahozko Lantegia:

- Mintzolako proiektuen hedapen plangintza eta prozedurak zehaztu lau urtez behin.
- Etxepare Institutuarekiko elkarlanaren hedapena.

EZZABALDU